

GUaiXE.eUS



Inasa, industrialde berria

>> 8-9

Altsasu, liskarretik politika ekaitzara >> 6-7



Asviamin elkarteak >> 11



Sakanako herri lasterketa Lakuntzan jokatu da >> 14



Carmen eta Patxi omenduko dituzte Ihabarren >> 5



BURNI MATERIAL MOTA GUZTIAK,
NEURRIRA MOZTU ETA
NAHI DUZUN TOKIRA
ERAMATEN DIZKIZUGU!
TXATARRA SALEROSKETA
ETA JASOTZEA

670 614 877
670 614 863
678 520 791

hichatal@gmail.com
Pol. Arkinorruti, G1-G2
31809 OLAZTI



ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Urritz

Azkenean iritsi da zure eguna, ostiralean 9 egingo dituzu. Ongi pasa eta merezi bezala ospatu, parrandero. Etxekoan partez.

Lastailak

21-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Antzerkia

Dot Lastailaren 23an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Maduixa** teatre.

Zergatik, Jamil? Lastailaren 23an, igandean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Tartean** teatroa.

Ipuin kontalaria

Berdin eta desberdin mila ipuin Lastailaren 21ean, ostiralean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Badut**

Bideo emanaldiak

Euskaraz 365 egun Lastailaren 21n, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Aizpea**, Irurtzongo euskaltzaleen gunea.

Zinema

Dheepan. Lastailaren 21ean, ostiralean, 21:45ean eta lastailaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Cuerpo de élite. Lastailaren 21ean, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 23an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bridged Jones' baby. Lastailaren 27an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko .

Mendi irteerak

Anie. Lastailaren 23an, igandean, 6:00etan Olatzagutiatik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendiigoizaleak.**

Igaratza. Lastailaren 23an, igandean, 8:00etan Altsasuko Mendiigoizaleen egoitzatik.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Lizarrar-Altsasu (95 km.) Lastailaren 22an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko San Juan plazatik. **Barranka txirringulari taldea.**

Lezaundi eta Baizako gaina (47 km.) Lastailaren 23an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:45ean Biotza kanpinetik. **Barranka txirringulari taldeko mendi bizikleta taldea.**



Anie mendia.

Ibilbideak

Toponimia itzulia. Lastailaren 23an, igandean, 11:00etan Irurtzongo plazan. **Aizpea**, Irurtzongo euskaltzaleen gunea.

Erakusketak

Altsasuko V. Arte Azoka. Azaroaren 13ra astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Artebide.**

Hitzaldiak

Marino Ayerra Argentinan. Lastailaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlaria: **Teresa Ayerra, alaba.**

Navarra, de la esperanza al terror. Lastailaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Ziordiko bideo-gelan. Hizlaria: **Jose Mari Esparza.**

Ekonomia politikoa. Lastailaren 22an, larunbatean, 11:00etan Altsasuko Gure Etxean. Hizlaria: **Nekane Jurado. Ennai.**

Jokabidearen trastornoaren duten demenziadun pertsonen erabilera; nola aurre egin urduritasun, oldarkortasun, aurkakotasun eta bestelako egoerei. Lastailaren 24an, astelehenean, 18:00etan

Etxarri Aranazko jubilatuen elkartearen. **Hizlaria:** **Jose Joaquin Roldan, Josefina Arregi** Klinikako mediku psikiatra.

Hizketaldiak

Bizi testamentua eta heriotza duina. Lastailaren 24an, astelehenean, 19:30ean Egiarretako elkartearen. Izanen da: Manu Eziolaza, DHE Nafarroako burua eta sendagilea. **Astelehen Zorionsuak.**

Tailerrak

Ciber-apainketa. Lastailaren 21ean eta 23an, ostiralean eta domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gaztegunean.

Bestelakoak

Expo Boda Sakana. Lastailaren 22an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranazko Borda jatetxean.

Carmen eta Patxi Irañeta, oroipen eguna. Lastailaren 22an, larunbatean, 13:30etik aurrera Ihabarren.

Altxorren bila. Lastailaren 23an, igandean, 11:00etan Irurtzongo plazan. **Aizpea**, Irurtzongo euskaltzaleen gunea.

Intxostiapunta gazte gunearen ate irekiak. Lastailaren 23an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Utzi bakean Altsasu. Lastailaren 22an, larunbatean, 13:00etan Altsasuko Foru plazatik.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Beilatokia, beste nonbait. Lastailaren 26an, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Auzolana Enneco parkean. Lastailaren 22an, larunbatean, 9:00etatik 13:00etara Etxarri Aranazko Danbolintxulo dermioan. **Nafarroa Bizirik fundazioa.**

Arakil / Egiarreta

Astelehen Zorionsua heriotza duinaz

Astelehenean, 19:30ean, Egiarretako elkartearen

Bizi testamentua eta heriotza duina. Bi gai horiek izanen dituzte hizpide Astelehen Zorionsuak ekimeneko parte-hartzaileek. Haiekin batera Manu Eziolaza izanen da, Duinki Hiltzeko Elkarteko Nafarroako burua eta sendagilea dena. Arakildar eta irurtzundar batzuen ekimenez abiatu zen Astelehen Zorionsuak apirilean. Hilean behingo hitzorduak astelehenean dira. Elkarrekin euskaraz hitz egitea da helburua. Horretarako, testuak, ikusentzunezkoak edo intereseko gairen bat izan daitezke abiapuntua.

Altsasu



Pentsio duin eta publikoen alde azokan

Sasoa, Nafarroako jubilatuen elkarteko kideak "denendako pentsio eta soldata duinak" aldarrikatu zituzten Altsasuko azokan herenegun. Azaldu dutenez, "banketxeak eta gobernua bera aspaldi ari dira pentsioen desagerpena iragartzen. Kudeaketa penagarria egin dutenek pentsioak ordaintzeko dirurik ez dagoela esaten ari zaizkigu aspalditik". Sasoiako kideek pentsioak estatuko aurrekontuetatik zergatik ez ordaindu galdetu dute. "Pentsio publikoen kutxa husten ari dira zor publikoa ordaintzeko edo banketxeak eta enpresa batzuk laguntzeko".

Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenean ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Irurtzongo industrialde berriaz
- Altsasuko liskarraren inguruan
- Amiantoak kaltetutakoan elkartea

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

ERRONKAN IÑIGO ARITZA FINALISTA: Nafarroa Oinez barruan ikastoletako taldeen artean jokatu den ginkana da Erronka. 14 ikastola nafarretako 12 taldek eman zuten

izena. Finalera hiru pasa ziren, horien artean Iñigo Aritza. Baztan ikastolak irabazi zuen, burundarrak 3. izan ziren.

ezkaatza >>

>> Uharte Arakil



UTZITAKOA

29ko omenaldiko herri bazkarirako izen ematea zabalik

Asteartera arte eman daiteke izena Mendikoa kafetegian, 20 euro balio du

Hiru uhartearerail zitzutela 80 urte beteko dira hileko azken ostiralean, 28an. Efemeride hori gogoan, Uharte Arakilen frankismoak errepresaliatutako pertsona guztien omenez omenaldia egingen da. Udalak aho batez erabaki zuen Uharte Arakil, 80 urte memoria galtzen taldearekin batera ome-

naldia antolatzea. 13:00etan izanen da hori. Eta, ondoren, herri bazkaria izanen da.

Omenaldiaren aurretik taldeak Altsasuko, Agoitz, Sartagudako eta Uharte Arakilgo memoria berreskuratzeko saiakeren inguruan mahai-ingurua antolatu zuen. Hainbat uhartearrek entzun zitzuten Javier Olloren, Unai Lakoren, Pablo Albaneseren eta Aina-ra Aiestaranen azalpenak.

>> Ziordia

Urteurrena bete duen ezinbesteko liburu batez

Gaur, 20:00etan, Ziordiko bideo-gelan

Navarra de la esperanza al terror liburuaren 30. urteurrena Tafallan ospatu zuten larunbatean. Alaffayllak argitaratu zuen lan hark mugarri bat markatu zuen Nafarroako memoria historikorearen berreskurapenean. Hura ondu zuenetako bat izan zen Jose Mari Esparza eta liburuaren inguruko azalpenak emanen ditu gaur.

Ziordiko Udalak memoria historikoari eskainitako hilabetearen barruan dago Esparzaren hitzaldia. Egitaraua Mainer Urretabizkaiak frontoian errepublikako banderaren kolorez margotutako muralarekin hasi zen. Hilaren 6an Toti Martinez de Lezea izan zen Ziordian. 30 bat pertsonekin *Y todos callaron* liburuaren inguruan hizketan aritu ziren. Hurrengo egunean Pako Etxeberrria forentseak Urbasako eta Otso-



UTZITAKOA

portilloko lezeetako exhumazioez azalpenak eman zituen. Bideo gela txiki gelditu zen 110 pertsonendako eta hitzaldia elkartean egin behar izan zen. Bestalde, Sartagudako memoriaren parkea 60 ziordiarrek ezagutu zuten bertatik bertara.

Pleno berezia

Hileko azken domekan, 30ean, Ziordiko Udala pleno berezia eta hildakoei eta errepresaliatuei aitortza ekitaldia egin ditu.

Domu Santu eguna 2016

"Izar bat, izar bi, lau, zazpi. Hor beste bi, itzalen zaindari".

Gure ondotik urrundutakoak gogoan izateko uneak datozkigu eta horiek modu berezian bizitzeko hona hemen eskaintza zabala

IZARTE
Centro de Jardineria

Isasia Industrialdea (negotegia) Altsasu
948 467 947
637 443 987 / 670 063 093
jardineria.izarte@gmail.com

Bertan ekoiztutako eguzkiloreekin zentroak egiten ditugu. Lore bizia eta moztua. Zentru eta konposizioen erakusketa zabala.

Urriak 24-Azaroak 1
9:00-20:00



Joreia
lore eta belardenda

948 46 74 26 | San Juan 52
685 72 21 12 | 31800 Altsasu

Gure lana berrikuntzan eta lanketan datza:
Kuxinak, bihotzak, gurutzeak eta zentruak kristalean sartuta.

Eguzkiloreak horma-hilobi eta panteoietan kokatzen ditugu. Eguzkilorea guk lantzen dugu.

Larunbata 29 eta igandea 30 egun osoa zabalik.

5%eko deskontua, azaroaren 26a baino lehen erosiz gero

Goiko
LOREDENDA

ALTSASU
Gartzia Ximenez 33

Aukera eta preziorik onenak!

Lore sorta, zentro, konposizio, krisantemo eta loredun landareak

Urriaren 26etik azaroaren 1era
8:00etatik 20:00etara **ZABALIK**

ENKARGUAK:
948 564 260 / 610 098 595



Marian Mendiola

Landa eremuko neska-emakumeak

Asteburuan ospatu genuen Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan nator oraingoan. Urriaren 15a eta beste asko gehiago behar luke, landa eremuan bizi diren eta lan egiten duten emakume guztiei aitortza egiteko, ikustarazteko eta beren zeregina balioan jartzeko.

Egungo landa eremuko emakumeok, itxuraz, bederen, zerikusigutxi dugu gure ahaideekin; (...) Historian honantzagorritara, ordungo emakumeen bizimoldeari eta lanari segida eman diotenak aldamenen ditugu eta hosto erortzen hastearrekin batera beren udazken-uztak erakutsi dizkigute, feritan, gazta-lehiak-

tetan, txistor egunean, onddo erakusketetan, artisautza-elikadura azoketan, artegintzan, laborantza foroan, formakuntza saioretan, eta abar. (...) Lurrari estuki lotutako bailara honetan, jasotako uzta eta sortutako produktu horiek turismoarekin uztartzeko bidean dabilta, egitasmohorietako asko emakumeengidarrizapean. Lehen sektorean lan egiten duten ibarreko nekazari eta abeltzainen arrimura beste eginkizun osagarri batzuk berpizten ari dira, hala nola, ekoturismoa, landa-turismoa, nekazal-turismoa, turismo-produktuen sorkuntza, artisau lanak, eskulangintza, tokiko lehengaien

transformazioa eta nekazaritza-abeltzantza elikadura.

Landa eremuan bizi diren emakumeak gure herrien garapen iraunkorra bermatzeko giltza dira. Horregatik, iraunkortasuna bermatu nahi bada, ezinbestekoa da eremu honetan bizi diren emakumeek nozitzen dituzten desberdinkeriei aurre egitea, baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak erabiliz.

Landako emakumeak ikusgarri jarri eta dauden tokian daudela nozitzen dituzten aldeak edo "brextak" murrizten joateko sostengua eskaini ezean, erraza izango da bertatik alde egitea. Euskal Herriko beste bazter batzuetan

eman izan den moduan hemen ere emakume-exodoa eman daiteke, hiriguneetara lan bila eta bizitzera alde egitea.

Bailarako turismoa pizteko bidean jendartean "beldur-hotsak" sortzen ari diren arren, egitasmohorien dinamizazioan, elkarlanean, auzolanean, koordinazioan eta lidergoan dabilta emakume-eragile aktibo horiek guztiak ikustea pozgarria da. Zailtasunak zailtasun eta zeharka-meharka bada ere, bisitariak erakartzeko ekimen publiko eta pribatuaren antolatzaileentzako eskaini diren laguntzetan dagokizuen tokia izan dezazuen opa dizuet: zutik, arraio!! **Osorik: www.guaixe.eus**

astekoa

hara zer dien

Etxebizitzaren alokairu poltsa

Gure herrietako paisaia hainbat etxebizitzetan txintxilaturik dauden "salgai" kartelak bloke eta auzo askotan ikusten ditugu. Etxe bat saltzea ez da kontu erraza gauegun, kartel horiek urteetan ikus ditzazkegu leiho edo balkoi berdinetan, hautsiak eta horituak, baina toki berean jarraitzen dute zintilik. "Alokatzenda" kartelak ikustea zailago da.

Salmentan dauden etxeak asko izanda, salerosketa handirik ez denez egiten ari eta etxebizitza arazo handia dagoenez, Nafarroako Gobernuak ALOKAIRUPOL-TSA zerbitzuari indarra eta bultzada emannahidiodio. Zertan datza? Helburu nagusia hutsik dauden etxebizitzak erabiliak izan daitezela da, horretarako alokairu poltsa bat sortuz. Hona hemen azalpen batzuk:

Nafarroako edozein herritan okupatu gabe dauden etxebizitza libreak eta erabiliak dauden babestuek (desokupatzeko baimen administratiboa baldin badute, betiere) sar daitezke alokairuen poltsa honetan, baldin eta herri horretako etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsuan pertsona bat bada go gutxienez izena emanda.

Bizigarritasun-zedula indarrean izan behar du eta baldintza zehatz batzuk bete ere (gas, argi eta ur ornidura izatea, sukaldeak oinarritzko ekipamendua izatea, bertan inor erroldaturik ez gotea... besteak beste).

Etxeetako jabeek ematen zaizkien bermeak, alokatzeako pausoa ematera animatzeko dira, askotan beldurra izan daitekeelako egiteko. Hauek dira berme batzuk:

- Nafarroako Gobernuak bertutako alokairua, hilero kobratuko denaren bermea.

- Etxebizitzaren itzulera egoera onean.

- Arrisku anitzetarako aseguria. Alokairua sistema aukeratzan duen herriko edo inguruko biztanleei etxebizitza duina eskuratzeko bidea erraztu nahi zaio, hutsik dauden pisuak norbaiten etxe bihurtuz.

Nafarroako Gobernuaren mendeko NASUVINSA sozietate publikoak kudeatuko du programa hau. Harremanetan jartzeko: 848 420 601 edo www.vivienda.navarra.es. Bertan zure etxea eskeini edota alokairuzko etxe baten eskara egin dezakezu.

Sakanako Gizarte Zerbitzuak

barrutik kanpora

Zementu-fabriketan erraustearen aurkako estatuko plataformen VII. topaketa Alcalá de Guadaíra (Sevilla)

Azaroaren 11tik 13ra izanen da VII. Topaketa Sevillan. Gogoan izango duzue, 3MB plataformak IV. Topaketa Altsasun antolatatu zuen, zementua ekoizteko instalazioek hondakinak errausteko erabilteak dakartzan ondorioak gizarteratzeko balio handia izan zuena, zalantzarik gabe.

Alcalá de Guadaíra Olaztikoren ekoizpen gaitasun antzekoa duen lantegia dago eta, hemen

bezala, trikimailu berak erabiltzen dituzte "erregai ordezkapena" zabaldu eta herritarrek onar dezaten, errausketak, orain "energia balorizazioa", erantzun sozial handia jasotzen duelarik. Erregai ordezkapena aurretik jarri eta eztabaida faltsua sortzen dute, lanpostuen mantentzea... kolan jarriz eta zaharkiturik geratu diren orain arteko argudio

iruzurtiak -hobe dela hondakinak erraustea zaborte gira botatzea baino edo negutegi efektua eragiten duten isurketak murrizten direla- ordezkatzen saiatuz.

Alcaláko Portland-en fabrika beraien gezurren adibide argia da. "Biomasa" erregai gisa eskatzen hasi ziren erantzun soziala kamusteko. Gero, herritarrek lasaitu zituztelakoan, 292.000 tona errausteko baimena eskatu zuten,

hau da, Nafarroan baztertu den errauskailuaren gaitasunaren ia hirukoitza eta Gipuzkoan aurreikusitakoarena baino 100.000 tona handiagoa.

Adiskide andaluziarren erantzun soziala handia da. Sakanatik, gure elkartasun guztia adierazi nahi diegu. Hantxe izanen gara.

Hiru Mugak Batera

<http://olaztinerkausketarizek.blogspot.com.es>

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak,

telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain

hartzen derrigorrez, aldizkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

bideek. Baina gure herriak bertute pila ditu (...) betidanik, kirol aukera pila bat izan ditugu eta (...) kirolari paregabeak atera dira. (...) baso eta mendizoragarriak (...) Munduko inauteri ikaragarriak (...) Gurutzeta edo jentilen leihoa (...) euskalkia berreskuratzeko asmoa duen gazte-talde bat daukagu. Hitz gutxitan, herri ederra eta jende zoragarria ditugu.

Hauek dira egunotan ahaztuak diruditen bertute askotako batzuk. Hau bai delako Altsasu eta ez egun hauetan zabaldu dutena. Guztiak gonbidatzen zaituztegu, beso zabalik hartuko zaituztegu. **Osorik: www.guaixe.eus**

Nire herri maitea

Hodei Zia Lopez, Altsasuz harro dagoen herritarra

Dagoeneko, ziur aski, guztiek jakingo duzue Altsasun pasa den larunbatean gertatutakoa. Gertakariatik askok bere arbuio sendoa azaldu dute (...) Baina benetan dakigu zer gertatu zen? (...)

Astean zehar Altsasu kazetariz bete da, goitik-behera. Hauek, irudiak hartu, betiko esaldi berdinak esan eta alde egin dute gure herritik, gure iritzia edo gertakariaren ikuspuntua eskatu gabe.

Txikitatik erakutsi digute: "bik ez dute borrokatzen batek nahi ez badu" eta "norbaiti errua bota baino lehen, informazioa ongi aztertu behar da". (...) Albistee-

tan atera diren hainbat datu erabat lekuz kanpo daude. (...) hainbeste jende egotekotan, nola da posible soilik orkatila zauritua izatea? Denok dakigunez, holako liskar batean orkatila da bilatzen den lehena, ezta?

Hala eta guztiz ere kaltetu bakarrik altsasuarrak gara, gure herriaren irudia erabat zikindu dutelako estatuko hainbat heda-

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILA: Miren Alonso
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

OSASUN ETXEETAN ALDAKETARIK EZ:
Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak jakinarazi duenez, kide diren herrietako osasun-etxeetan lan egiten duten lau me-

dikuetatik bat ez da euskaraz aritzeko gai.
UEMAK salatu du Nafarroako deialdi publikoan 100dik 12ri eskatzen zaiola euskara.

sakanerria >>

>> **Altsasu**



Marino Aierraren sendiak.

Marino Aierraren alabak hitzaldia emanen du

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Marino Aierra Argentinan. Izen buru hori du Teresa Aierrak emanen duen hitzaldia, Altsasu Memoriak antolatu duena. 1936ko estatu kolpearen ondoren Altsasun izandako errepresioaren lekuko zuzena izan zen Marino Aierra Redin apaiza. Berak idatzitako *Nome avergencé del evangelio* Altsasuko memoria historikoa dokumentatzeko ezinbesteko liburua da. Joan den urteko 60ko eta 70eko hamarkadetan ezkutuan iritsi ziren Altsasura.

BIOGRAFIA LABURRA

Aierra Irunberrin jaio zen, 1903ko maiatzaren 8an. 1928an apeztu zen. Karrera akaberen Ansoleaga saria jaso zuen eta teologian doktorea zen. 33 urte zituela, 1936ko garilaren 16an Altsasura iritsi zen. Aierraren leloa honakoa zen: "altu pentsatu, sakon sentitu eta argi hitz egin". Egun haietan izan zuen jardunagatik, beti herritarren alde, kaputxinoek salatu eta agintariek ohar-tarazi zuten. Izan ziren basakerien kontra egon zen beti Aierra, etengabe salatzen zituen. 1939an Uru-guainexiliatu eta 1940, sekulartuzen. Aierrak *Nome avergencé del Evangelio* (1958, Ediciones Periplo) liburua argitaratu zuen. Gerran eliza katolikoaren jarrera salatzen du. Sorterrira bueltatu gabe, Aierra Buenos Aires probintziako Caguazú herrian hil zen, Argentina, 1988ko ilbeltzaren 11. +www.guaixe.eus

>> **Ihabar**

Irañeta anai-arrebak omentzeko eguna

Bihar, 13:30etik aurrera

Carmen eta Patxi Irañeta Goikoa anai-arreba ihabardarrak omentzeko dituzte sorterrian bihar. Duela 40 urte biek Kolonbiako bidea hartu zuten, hango komunitateetako jendea laguntzeko. "Euren eskuzabaltasunagatik eta zintotasunagatik" ihabardarrek bien memoria berreskuratu nahi du biharko omenaldiak.

Bietan zaharrena Carmen zen, ospitalean erizaina zen. Patxik, berriz, nekazaritza-peritu ikasketak egin zituen Atarrabian. Victor Juango ihabardarrekin, Azkoiengo beste erizain batekin eta Zaragozako batzuekin Kolonbiara joan ziren, "jendea kooperatibetan, nekazaritzan, osasun arloan laguntzera". Kolonbia zergatik aukeratu zuten galdetuta, Juangok azaldu digunez, Pedro Casaldáliga Plá gotzain eta poeta Brasilen zegoen, "gizon ona. Hara joan behar genuen, baina lur-jabe handiek misiolari bat hil zuten eta klarretarrek hara ez zuten gurea joan esan zuten. Kolonbiara joatea hobe zela ikusi zuten, hango komunitateek ateak ireki zituztelako".

1976 urtea zen. Garai hartan gobernu kanpoko erakunde gutxi zeudela gogoratu du Juangok. "Lan egitea oso zaila zen. Klaretar misiolariak ardura hartu zuten eta gu guztioi ateak ireki zituzten. Beraiekin lan egitera joan ginen, baina gu laikoak ginen. Lana egiteko zegoen. Eta oraindik berdin dago. Dena egiteko dago".

Hiru lanetan aritu ziren alfabetizazioa, osasun arloan prebentzioa eta nekazaritza sistemak hobetzen. "Prebentzioa haien belarrak eta gauzak hartuta egiten zen". Juangok azaldu digunez, komunitateekin lan egiten zuten: "klaretarrek antolakuntza pixka bat bulkatzen ari ziren. Han ez dago biderik. Oihanean ez daiteke ibili. Oso baztertutako lekuetan zeuden herriak eta gu han sartu ginen". Hura "ahaztuta" zegoela



Irañeta anai-arreba ihabardarrak lagun batekin. UTZITAKOIA

azpimarratu digu: "politikoak hauteskunde garaian doaz eta gero ez dira inoiz hurbiltzen". Bertakoak "jende jatorra baina oso pobreak" zirela gogoratu du.

Choco aldean aritu ziren. "Kolonbia iparraldean dago, Panamako mugan. Atlantiko Barea ozeanoen artean dagoen departamentu bat da. Handia da. Erdian Atrato ubeldea dago". Joan zirenean ENL gerrilla eta paramilitarrak opatu zituzten. "Choco aldean ez ziren sartu. Jende guztia kontrolatzen zeuden. Egun batean gazte bat proiektu bat ikustera etorri zen. Joaterakoan esan zigun gerrillaria zela eta zertan ari ginen ikustera etorri zela. Gustatu zitzaion egiten ari ginen alfabetizazio eta osasun lana".

Carmenen heriotza

Patxi aurreneko bi urteak Jilgalen egon zen, Iruñeko Jose Ibañezekin (nekazarien alde lanean zela hil zuten). 1978ko udan Choco utzi eta Bogotako Bolibartar Unibertsitatean landara egokitutako antropologia ikastarora joan ziren, 20 egunerako. Tropikotik Bogotako alturara igo ziren eta Carmen

sukar handiarekin gaixotu zen. Ospitalera eraman zuten. Paludismoa zen. "Hirugarren egunean medikuek esan ziguten oso gaizki zegoela eta ezin zitekeela ezer egin. Ebakuntza-gelako gaitza hartu zuen". 1978ko garilaren 8a zen.

Kolpe handia hartu zuten. "Patxi Chocon zegoen. Komunikazio oso txarrak daude. Irrati-igorgailuz jakinarazi genion. Hura iritsi arte hiru egun egon ginen ospitalean". Carmeni Bogotan eman zituen lur. Ordurako Nikaraguako iraultza hasia zen eta, "horregatik, Patxiez zen Bogotara joan, Nikaraguara joateko asmoa baitzuen".

Juangok eta gainerakoak hiruzpalau urte gehiago segitu zuten Kolonbian. Patxi familiarengana etorri zen Ihabarrera. Baina Chocora bueltatu zen. Han bi hilabete eman eta Panamara zeharkatu zuen, Nikaraguara joan zen.

Nikaraguan

"Lanera joan zen. Orduan bere bidea han zegoela esan zuen". Nekazaritza lanak egin zituen: "nekazaritza ekologikoarekin eta sendabelarrekin hasi zen. Lagun-

tzen, erakusten. Lekaleak eta hango gauzak hobe sartzen". Juangok dioenez, "hura herriko bat bezala sartu zen eta jendeak asko maitatu zuen. Hango bat zen, ez hemengo bat. Beren ohiturak hartu, lan egin eta abar". Juangok aipatu duenez, "hemengo jende askorekin zegoen han. Leku guztietan sartuta zegoen. Gauza onak egin zituen. Nekazaritza asko berritu zuen, jendeak hobe nola jan behar duten erakutsi, sendatzeko landareak nola erabili... halakoak".

Hondurasen, Tegucigalpa hiriburuan, ikastaro bat zegoela eta hara joan zen. "Hegazkin handi bat, Junbo bat, lur hartzean mendi bat jo zuen eta han hil zen bidaiari guztiekin". 1989ko lastailaren 21 zen. "Kolpe handia izan zen". +www.guaixe.eus

Egitaraua

13:30ean Ezkila errepika.
14:30ean Aurkezpena eta omenaldia.
15:00etan Bazkaria*.
19:00etan Dokumentalaren proiektzioa**.

*110 pertsonak eman dute izena. **Bihar salgai izanen da, gero sarean.

Hyundai Tucson berria
Aldatzea jarrera bat da

#changeisgood

Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirraragarriak aurkitzen laguntzen digu. Iru-dimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoez, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea www.hyundai.es-en

NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Tucson 1.6 GDI (131CV) 4X2 BD ESSENCE (18.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gobernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A. ren bidez finantzatzeko duten bezeroendako izango da, gutxienez 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxienezko epea izango duena. Finantzaio entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2015/12/31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modelo: Tucson Style. Kotxearen finantzaioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantentzen diren argibideak Hyundai konzesionarioaren edo [hyundai.es-en](http://www.hyundai.es-en).

Gama Hyundai Tucson: CO₂ (gr/km) isurtzea: 119-175.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

Altsasu, liskarretik politika ekaitzara

Bi atxilotu utzi ditu ferietako liskar batek



Garzia Ximenez kaleko bi zebrabideen artean izan zen liskarra. Beheko seinalearen ondoan lehen atxiloteta.

Guardia civilak tartean izan ziren liskarrean. Bi gazteei agintearen kontrako eraso eta lesio delituak egotzi dizkiete. Astean behin epaitegian sinatu beharko dute. Biek liskarrean parte hartu izana ukatu dute. Guardia Civilak liskarrean izan ziren beste zortzi gazte identifikatu omen ditu

Ferietako ospakizunak ostiralean hasi ziren Altsasun eta, horregatik, tabernek goizaldera arte zabalik egoteko baimena zuten. 4:55 aldera taberna batean liskarra sortu zen. Lanordutik kanpo, Guardia Civilaren teniente bat eta sargento bat bikoteekin tabernan zeuden. Haien eta herritar batzuen artean liskarra sortu zen. Antza,

han zeuden batzuk sumatu ere ez zutena egin.

Kalean segitu zuen liskarrak. Espainiako Gobernu Ordezkaritzak zabaldu zuenez, "herritar talde handi batek erasotu zituen". Hedabide batzuk erasotzaileak "40 edo gehiago" zirela zabaldu dute. Kolpatuak izaten hasi zirenean agenteek Guardia Civilak zirela jakinarazi omen zuten. Gertaeraren ondorioz tenienteak orkatilan haustura izan zuen eta Nafarroako ospitale gunean operatu zuten. Dagoeneko senda-agiria du. Beste agentea eta bikotekideak ere ospitalera eramane zituzten kontu-

sio arinak zituztelako. Ospitalean Uxue Barkos presidentearen eta Fernando Dominguez osasun kontseilariaren bisita izan zuten.

Atxilotetak

Foruzaingoak gertakariaren berri izan eta patruila eta Interbentzio Brigada Zentrala bidali zituen. Aurreneko atxiloteta Gartzia Ximenez kalean izan zen, 5:30 aldera. Ospa mugimenduak zabaldu duenez, kale berean baina liskarra gertatu ez zen beste taberna batetik ateratzean atxilotu zuten gazte hori. Antza, plazako beste taberna baterantz zihoanean. Ordurako

ambulanzia Gartzia Ximenez kalean zegoen. Foruzainak liskarra hasi zen taberna atarian zeudenen kontra oldartu omen ziren. Bigarren atxiloteta, berriz, 6:30 aldera Foruzaingoaren polizia etxearen ondoan. Haraino altsasuar talde handi bat joan zen atxilotuari elkartasuna azaltzera. Foruzaingoak haien kontra kargatu zuen, "guztiek kolpeak jaso zituzten" eta gazte bat atxilotu zuten. Foruzaingoaren esku gelditu zen ikerketa. Guardia Civilak foruzainen galderi erantzutea baino euren kideei erantzun eta gero txostena bidaltzea nahiago izan dute.

Bi gazteak Iruñeko 3. zenbakiko Instrukzio Epaitegiko epailearen aurretik astelehenean pasa zirenetan aske daude. Bati agintearen aurka eraso egitea eta lesioak eragitea egotzita inputatu dituzte eta astero joan beharko dute epaitegira. Epaitegi atarian "polizia muntaien kontra" protesta egin dute 30 bat pertsonak. Besteak beste, Utzi bakean Altsasu idatzirik zituzten orriak erakutsi dituzte. Herrira bueltatu behar zirenean Polizia Nazionalak identifikatu egin zituen.

Lekukoek jakinarazi digutenez, aurreneko atxilotuak eta bere lagunak gau berean aurretik Foruzainekin ika-mika izan zuten. Lagun

bat kanpora zihoala eta hura despeditzeko ospakizuna egin zuten. Ordu txikitan etxajua bota eta foruzainen patruila batek horregatik kontu hartu zien. Ez zen gehiagorik izan. Baina patruila bereko agente batek atxilotu-arazi zuen aurretik ezagutu eta plazarantz zihoan gaztea, 5:30ean.

Liskarraz

Tabernan liskarra zerk eragin zuen, horri buruzko hainbat bertsio zabaldu dira. Baten arabera, guardia civilak zirela jabetzean bezero batzuk alde egiteko eskatu zirela. Besteak, aurretik gazteren batek emakumeetaren bati esandakoak hura haserrarazi zuela. "Tabernako ohiko borrokatza" jo duenik bada ere.

Ospa mugimenduak zabaldu duenez, agenteen jarrera "oldarkorra" zen, "probokatzen eta bultzadak" ematen hasi zirela salatu du mugimenduak. Baita mehatxu "larriak" egin ere: "hilko zaitut" eta "begi artean tiroa sartuko dizut". Ospatik azaldu dutenez, "seguitan biolentzia erakustaldia egin zuten. Horrek ekarri zuen guztia". Mugimenduak ziurtatu duenez, "inolaz ere ez zen egon segadarik, ezta aipatu diren hordakopuruak, herritarrak zaurituak izan ziren".

Nafarroako Parlamentua

Bozera maileen batzordeak bi adierazpen onartu ditu. Aurrenekoa UPNk, PSNk eta PPNk aurkeztu dute. Haien aldeko botoekin eta gainontzekoen abstentzioarekin onartu da. "Jarrera faxistak dituen justifikazinezko eraso honen aurrean kondena irmoa, elkarbizitza arau oinarritzaren eraso ez baitituzte errespetatzen". Zaurituei

elkartasuna adierazi die, Guardia Civilak egiten duen lana babestu eta aitortu egin du.

Aldi berean, toki erakunde eta gizarte eragileei dei egiten zaie "festetan elkarbizitza hobetzeko lan egiteko, festa guneak pluralak, integratzaileak eta gorrotoz eta propaganda politikoz guztiz aske egon daitezten" lan egin dezaten. Bilkura batekin bategitea eskatzen zuten puntua ez da onartu gobernuari eusten dioten lau indarrek kontra bozkatu dutelako.

Bigarren instituzio adierazpena Geroa Baik, Ahal Duguk eta I-EK aurkeztu dute. Bozketan haiekin bat egin du PSNk. EH Bildu abstentitu egin da eta UPNk eta PPNk kontra bozkatu dute. Adierazpenak "jazotako gertaera bortitzak salatzen ditu". Zauritutako pertsonen elkartasuna adierazi die. Altsasun elkarbizitzaren aldeko apustua egiten du, "aipatutako moduko gertakariak atzean utziz. Halakoak iraganekoak dira, ez dute gure orainaldiaren zati izan behar".

Nafarroako Gobernuak

"Erabateko kondena". Zaurituei elkartasuna. Konpromisoak: "bake kulturarekin, errespetuarekin eta elkarbizitzarekin". "Ideiak edo proiektu defendatu, edo desberdin pentsatu, bizi, sentitu, lan edo adierazten dutenekin gatazkak konpontzeko inor indarkeriara jotzeko legitimatuta ez dagoen gizarte eraikitzeke".

Mariano Rajoy

Jardunean den Espainiako presidentek Twitter bidez "eraso basatiaren ondoren besarkada eta animoa" bidali zion Altsasuko Guardia Civilari. Presidenteak aurreratu zuenez, "ez da inpunitaterik izanen".

Arsenio Fernandez de Mesa

Guardia Civilaren zuzendari nagusiak erakundeko zuzendariondoko operatibo Candido Cardiel teniente eta Nafarroako eskualdeko koronel nagusi Javier Hernandez Altsasuko kuartelean eta Nafarroako ospitalean bisitan izan ziren igandean, agentei babesa azaltzeko. Fernandez de Mesarendako "erasoa miserablea eta nazkagarria izan da. Ez soilik jasotako kolpeengatik, baizik eta erasotzaile kopuruagatik". Aldi berean, "jasotako elkartasun adierazpenak eta eraso honen gaitzespenak eskertu" zituen. "Erasotzaileen kolpeetatik libratzen saiatzen zirean artean" emakumeak "basatiki kolpatuak" izan zirela eta agintariak "sexu indarkeria" jo zuen.



Ospa Mugimendua



Makina bat jende elkartu zen Foru plazan larunbatean, 20:00etan, egindako kontzentrazioan. Atxilotetak direla eta, Ospa mugimenduak atxilotuei "elkartasun osoa" adierazi die. Ospakoek azaldu dutenez, "ez gara egoera normaldu batean

bizi, eguneroko ogi baitugu indar errepresiboaren mehatxu, oldarkeri, kolpe, check-pointak eta abar". Maiz jakinarazten dituzten kontrolen datuak gogorarazi dituzte (Sakanan 450 baino gehiago 9 hilabeteetan) gaineratzeko: "gurea biolentatuta-

ko gizarte bat da, inposaketa eta errepresio kuota altuak (Europako altuenak) jasatera kondenatuak hamarkadaz-hamarkada".

Ospatik azaldu dutenez, "ez da lehenengo aldia gure herriko parrandaguneetan, sobera kontrolatuko "inkontrolatuen" erasoak jasaten ditugula, txozna gunean, tabernatan. Azken kasua, Ospa eguneko kontzertuetan izan genuen eta, noski, herritarrek kanporatu egin zituzten kale-jantzitako poliziak. Bestela ere zenbatu-ezinak dira urteetan jasan ditugun okupazio, mehatxu, kolpe eta bestelako perlak... Euren esanetan "aisialdiaz gozaten".

Larunbat goizaldean gertatutako ari hedabideek polizia-iturri eman dako bertsioari emandako sinergiaritasuna salatu du: "eskarmen-tu ederra dugu holako egoeratan,

desitxuraketa eta gezurretan nahasi baitute askotan gure herriaren izena". Bestelako egoerak nabarmendu nahi izan dituzte: "guk bakarrik dakigu zer den, zure isun astronomikoa sinatu duen polizia zure alboan jasan behar izatea, kontrol batean mehatxatu eta zigortu zaituen agentearen irribarre faltsua ikustea eta zer esanik ez Ospa eguneko gertatu bezala euren makilkada eta kolpeak jasotzea... doan ateratzen zaie eta inork, guk salbu, ez du ezer esan, ezer ez salatu, ezer ez egin..." Horregatik Ospako kideek diote larunbateko ez zela egoera "isolatu" bat. Gertaeren ondoren herria poliziaz bete izana salatu dute. Ospatik "borrokan" jarraituko dutela adierazi dute, Guardia Civila "nahi eta behar" ez dutelako.

Altsasu, liskarretik politika ekaitzara

Udalak bakean eta elkarbizitzan sakontzeko deia egin du

Altsasuko Udalak larunbat goizaldeko gertakarien ondoren instituzio adierazpena onartu du Geroa Bairen, Goazen Altsasuren eta PSNren bozkek

Alkateak adierazi duenez, udal talde guztien artean adierazpen adostu bat lortzen saiatu dira, baina ezinezkoa izan da. Alkateak EH Bilduk egindako ahalegina aitortu du, "puntu askotan ados zeuden, baina ezin izan da". UPNren jarrera "urrunagoa" zela gaineratu du. Bi ordu eta erdi iraun zuen bilerak.

Udalak astelehenean onartutako instituzio adierazpenak "gertatutako indarkeria gertakariak kondentzen ditu, baita edozein indarkeria maila ere, indarkeriak txikiak barne, datozen tokitik datozela ere". Udalak zauritutako pertsonen elkartzuna adierazi die. Aldi berean, udalak "herrian elkarbizitzaren aldeko apustua" egin du.

Horrekin batera, udal adierazpenak "zenbait hedabidek gure herriaz eman duten irudia errefusatu du;



Alkateak adierazpenak egiten bozeramaileen batzordea eta gero.

errealitatearekin ez du zerikusirik". Bestetik, "gertakarien ondoren Guardia Civilak Altsasun izandako presentzia ugaria arbuiatu du. Presentzia horrek ez du elkarbizitza giroa sortzen laguntzen". Azkenik, Altsasuko Udalak "herrian bakean eta elkarbizitzan aurrera egiten segitzeko borondate irmoa" azaldu du.

PSNREN ZUZENKETA

Nafarroako sozialistek Altsasuko kideen udal adierazpena onartzerakoan izandako jarrera baliorik gabe utzi dute. Sozialista nafarren zuzendaritza ez dago adierazpeneko bosgarren puntuarekin ados. PSNko zuzendaritzak berretsi du "agenteek eta haien bikoteek jasan-

dako erasoak kondentzen" dituela.

EH BILDUREN PROPOSAMENA

EH Bilduk "kezka" azaldu zuen "zenbait pertsona zauritu eta bi gazte atxilotu eta ondoren aske utzi" zituztelako. Koalizioak "zabalduetako informazioekin eta arduradun politikoekin presazko erreakzioengatik haserrea" azaldu zuen, "Guardia Civilaren kontakizunari besterik ez dio erantzuten". EH Bildurendako "errealitatearekin bat ez datorren gure herriaren irudia eman da". EH Bilduk Guardia Civilak izandako gehiegizko presentziagatik kezka eta egon-eza" adierazi zuen. Horregatik, "herriaren desmilitarizazioa eskatzen du". +www.guaixe.eus

>> Altsasu

Feria eguna

Jende ugari hurbildu zen domekan Altsasura feriak zirela eta. Askok erosketak egiteko baliatu zuten.

Eta horretarako non aukeratu bazuten, 80 salmenta postu baino gehiago baitzeuden Gartzia Ximeñez eta Foru plazaren inguruan. Berritasuna mikologia erakusketan izan zen, hiru urteren ondoren bueltan eta Labadero eraikineko gimnasioan egin zena. Altsasuko elkarrekin 225 ziza jarri zituen ikus-

gai, baita basoan jasotako makina bat zabor, basora joatean hura jasotzeko eskatuz.

Zelai kalean zaldi azienda bilduzen bigarren urte jarraian. 21 abeltzainen 55 buru 9 mailetan lehiatu ziren, joan den urtean baina bat gehiago hazitarako zaldien maila bitan banatu baitzen. Guztira 2.540 euro banatu ziren saritan. Ez zen igande goizez herrian izan zen azienda bakarra, Ferialeku kalean behiak, piriniokoak gehien bat, astoak eta ardiak ikusgai izan ziren.



Auritz arrazako zaldiek protagonismo handia izan zuten.



Onddo eta zizen erakusketak jendetza erakarri zuen.

Erreakzio gehiago...

UPNK "Guardia Civilen kontrako erasoagatik erabateko gaitzespen sendoa" azaldu du. "Paliza koldar eta basati bat izan da, indar demokratiko guztien arbuioa eta kondena merezi dituen". Erregionalisten iritziz "pertsonen askatasuna eta osotasun fisikoa erasotzen direnean ez dago aitzakiarik, ez isiltasunik ezta jarrerazalantzakorrik". Gaineratu dutenez, "halako gerta-

kari biolentoak onartezinak dira eta Nafarroan nahi dugun bizikidetzaz oztopatzen dute". UPNK Guardia Civilaren eta gainontzeko segurtasun indarren lana eskertu du.

Geroa Baik guardia civilen kontrako erasoak "guztiz deitoratu eta kondentatu" zuen eta zaurituei elkartzuna adierazi zien. "Gertakari tamalgarriak, bidegabeak dira, batzuk lehenaldi penagarri bategatik berreskuratzen saiatzen direnak". Koalizioaren iritziz Nafarro-

ako gizartea "elkarbizitzaren alde eta gertaera bortitzen kontra dago". **Ahal Duguko** Laura Perezek "lasaitasunerako deia" egin zuen. "Berme guztiarekin ikertu behar da, eta, era batean, gertatutakoa politikoki erabiltzea deitoratzen dugu. Perezek gaineratu zuenez, "gertaera bakanak dira, ez dute elkarbizitza gaiztotu behar". **Izquierda-Ezkerrak** "guardia civil eta euren bikoteek jasandako erasoak kondentatu" du.



Asteleheneko agerraldian 200 bat altsasuarrek euren haserrea adierazi zuten eta manifestazioarekin bat egin zuten.

Altsasuar talde batek "estrategia militar-mediatikoa" salatu du

Utzi pakean Altsasu leloa duen manifestazioa deitu dute larunbaterako, 13:00etan

Prensa agerraldia egin duten altsasuarrek "hainbat hedabidek zein goi karguk emandako bertsio ofiziala" gezurtatu dute. Altsasun "egondako sarekada bakarra Foruzaingoak, Guardia Civilak eta ondoren komunikabide guztiek orkestatutakoa izanda". Gaineratu dutenez, "gau hartan Guardia Civilarengandik jasotako probokazio eta mehatxuak beste episodio beltz bat baino ez zen izan".

Azaldu dutenez, "hamarkada luzez erreprezio gogorra jasaten ari gara gurean. Dagoeneko pertsona gehiegi, bizilagun gehiegi gara Guardia Civil eta beste polizia indarren azpiko eta erasoak jaso ditugunak". Prentsaurrekoan adierazi dutenez, "argi dugu: gerra egitera etorri ziren polizia-indarrak gurera, eta horretan segitzen dute. Horri erantzun eta gure lehentasuna beti izan da herri aske eta antolatu batean bizitzea. Horregatik, ez da kasualitatea behin eta berriz erasoak jasotzea". Prentsaurrekoan agertu diren altsasuarrek ez dute onartu Nafarroako Gobernuak "inongo bertsiorik kontrastatu gabe egin dituen adierazpenak. Gu akusatatu gaituzte herriko giroa gaiztotu eta elkarbi-

zitzea oztopatzeaz. Zein erraza eta merkea ateratzen zaion ordezkartza politikoa mafioso hauen bertsio mediatiko-manipulatua indartzea". Agerraldian atxilotuena absoluzioa eta kasua artxibatzea eskatu dute. "Ez dugu beste epairik onartzen estrategia militar-mediatiko honetan". Antzeko kasuetan "gerora demostratzen da akusazioek ez dutela inongo oinarririk. Polizia muntaiak etengabe. Utzi bakean gure herria". Aldi berean nabarmendu dutenez, "Altsasun denbora daramagu sexu erasoen gaineko lanketa eta salaketa egiten. Hortaz, ez dugu inolaz ere onartuko manipulazio eta ekin-tza polizial argia izan den honi sexu erasoak deitzea." +www.guaixe.eus

Sariak

5 urtetik gorako hazitarakoak

1. Patxi Legarra Zubiriarena, Zuhatzu.
2. Patxi Arraiza Mezquirizena, Uharte Arakil.
3. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.

3 eta 5 urte bitarteko hazitarakoak

1. Sat Gonzalez Percas, Ziordia.
2. Juan Aldabarena, Satrustegi.

Behorrek pottoarekin

1. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.
2. Iñaki Larrea Percasena, Altsasu.
3. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri Aranatz.

Pottorik gabeko behorrek

1. Juan Aldabarena, Satrustegi.
2. Patxi Agirrerena.
3. Sat Gonzalez Percas, Ziordia.

Bi urte bitarteko pottoak

1. Juan Aldabarena, Satrustegi.
2. SC Alba eta Alustizarena.

Bizpahiru urteko pottoak

1. Jose Anjel Rekalderena.
2. Patxi Legarra Zubiriarena, Zuhatzu.

Bi urte bitarteko bihokak

1. Jose Anjel Rekalderena.
2. Jose Antonio Aldasorrena.

Bizpahiru urteko bihokak

1. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri Aranatz.
2. Iñaki Larrea Percasena, Altsasu.

Altsasuko abere onena

Iñaki Larrea Percasena.

www.pescaderiamariaeugenia.com

Arratsalde zabalik

Jar itzazu neguko arrainak labean!

Itsasoko lubina | Txixarroa | Muxarrak | Txipiroiak | Erla



Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

>> Etxarri Aranatz / SAKANA

Ezkontza antolatu behar dutenendako ekitaldia



Modeloa ezkongai jantziarekin, atzean Beriain duela. UTZITAKOIA

Larunbatean, 11:00etatik aurrera, ezkontzetan lan egiten duten hainbat profesionalak prestatutako aurreneko erakusketa egingen da. Ezkontzetarako beharrezko guztia topatuko da han.

Sakanako ezkontzen erakusketa egingen da aurrenekoz bihar. Sektorean lan egiten duten hainbat profesionalen elkarlanetik sortu da ekitaldia. Euren egitekoa "sormen handiz" erakutsiko dutela iragarri dute. Ekitaldian ezkontzetarako beharrezkoa den guztia bildu dute. Hala, ezkontzekotan diren bikoteek eta euren lagunek ezkontzen arloko profesionalen lana toki

bakar batean ikusteko aukera izanen dute.

Antolatzaileek esan dutenez, "gertuko profesional adeitsuak eta nortasunekoak, onenak," ekitaldiaren bidez ezkontza jantziak, orrazkerak, makillajea, lore sorta, argazki erreportajea, ospakizuna jantziarekin, une handiko presetaketa, hau da, ezkontzen inguruko guztia erakutsi nahi dute. Ahalegin horretan elkartu dira Aurkene Ormazabal diseinatzailea, Borda jatetxea, Lorea lore-denda, Arizcuren argazkilaria,

Alvaro ile-apaintzailea eta Xalok estetika eta nutrizio zentroa. Asmat dute "erabateko konfiantzako adituek: bikoteen kezka bakarra euren egunaz gozatzea izan dadila". Horretarako, euren eskarmentua eta azkeneko joerak uzartuko dituzte.

Erakusketan honakoak izanen dira: Lorea lore-dendak lore dekorazioan azken joerak erakutsiko ditu; Xalok zentroak nutrizioa, estetika eta osasunaz; Alvaro ile-apaintzaileak orrazkerak sortzaileak; Arizcuren argazkilaria argazki-erreportajeak; Norte bitxi-dendak bitxigintza; Txikitxo dendak ezkongaiendako lentzeria; Altsa-suko Lemik hotela; Tu dulce Txoko gozogintza originala eta sortzailea eta beste hainbat zerbitzu, ezkongaiak euren ezkontza Sakanan ospatu ahal izateko. Zozketak izanen direla iragarri dute. Ekitaldiansartzeko 3,5 euro ordaindu beharko dira.

Ekitaldia

Aurkene Ormazabal Fashion Desingen emakume ezkongaien jantzien desfilea izanen da ekitaldiaren ardatza. Ziordiarrek bere azken bilduma aurkeztuko du, Loulou de la Falaisen oinarrituta sortu duena. 10 jantzi izanen dira, "euren ezkontza egunean norbe-

ra izaten segitu nahi duten ezkongai xume, hiritar eta eleganteendako". Ekitaldian parte hartzen duten profesionalak prestatuko dituzte modeloak, Suakai soka taldearen doinura desfilatuko dutenak.

Ekitaldia Borda jatetxean egingen da, zeinek ezkontzetan eskarmentu handia duen. "Jantoki handia, harrera kokteletarako lorategia eta ezkongaiak aukeratutako menuarekin pozik gelditzeko aukera mugagabeak eskaintzen ditu Carlos Mañeru sukaldariak". Ekitaldian estatuko koktail eta gintoniken txapeldun den Carlos Rodriguezen koktel sortzaileekin gozatzeko aukera izanen da.

Egitaraua

11:00etan

Harrera. Photocall. Erakusketa eta informazioa. Ongi Etorri aurrekua.

11:45ean

Emaztegai jantzien desfilea.

12:30ean

Produktuen zozketa eta koktela.

14:00etan

Ekitaldi-itxiera.

www.expobodasakana.com

Ekitaldiari buruzko informazioa web orri horretan dago.

Inasa ze



Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsa enpresa publikoaren bidez, lantegia erosi du eta 20 bat enpresa ezartzea espero du. Urbanizatu ondoren kale berriak industrialdeko trafikoa arautu eta kamioi trafikoa Irurtzun erdigunetik kenduko du

Irurtzongo alkate Aitor Larraza Carre-rak azaldu zigunez, "azken hiru urteeta-

SAKANA

Nafarroa hegoaldeko euskalgintza laguntzeko kutxak

Errigora kanpainak, hirugarren urtez, Nafarroa hegoaldeko ekoizleen loteak eskatzeko aukera eskaintzen du. Irabazien %25 Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari emanen zaio. Eskakerak astelehenez azaroaren 8ra egin daitezke

Nafarroa hegoaldeko ekoizleen uzta hango euskalgintza diruz laguntzeko. Sistema hori erabiltzen du Errigorak, eta bide batez, bertako produktuen kontsumoaren aldeko eta elikadura burujabetzaren inguruan sentsibilizazio egingen du. 50 eurotako bi koloretako kutxak prestatu dituzte. Kutxa beltzak eduki hau du: oliba-olio birjina, mahats zukua, potxak, melokotoi-mermelada, arbondolak,

borraja ekologikoa, pikillo piper mania, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almi-barrean eta ardo ekologikoa. Kutxa txuriak, berriz: txokolatzeko gutziak, pasta ekologikoa, arroza, polboroiak edo teilak, madaria almi-barrean, eskalibada, pikillo saltsa, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almi-barrean eta ardo ekologikoa.

Joanden urtean sakandarrek 302 kutxa eskatu zituzten. Eskakerak egiteko bi modu daude. Batetik, www.errigora.eus web orriaren bidez eta bestetik herrietan izena



emanda. AEK euskaltegiak eta ikastolek ere kanpaina zabalduko dute, eta zenbait fabriketan ere izena emateko zerrendak jarriko dira.

Eskaera puntuak

- Irurtzun Pikuxar euskal txokoan edo Iratxo elkartearen
- Ihabar Elkartearen
- Irañeta Elkartearen
- Uharte Arakil Mendikoa kafe-tegarian edo Anaia tabernan
- Arruazu Ostatuan
- Lakuntza Eroskin, Bitori janari-dendan edo Tania arrandegian
- Etxarri Aranatz Kaxeta liburu-dendan edo Portuko okindegian
- Bakaiku Elkartearen
- Iturmendi Elkartearen
- Urdiain Mareo tabernan
- Altsasu Portuko okindegian edo Biltoki tabernan
- Olatzagutia Barandi tabernan
- Ziordia Etxaleku tabernan

MOTZEAN

Hezkuntzan mobilizazioak

LOMCE legea indarrean jartzearekin batera hezkuntza komunitatean protestak hasi ziren. Ikasturte honen akaberan DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako ikasleek azterketak, errebalida, pasa beharko dituzte. Horien kontra, legea indargabetzea eskatzeko eta murrizketen kontra egingen dute.

Udalak baliabideen gida egiteko deialdia egin du

Etxarri Aranatzko Udalak Etxarriko Baliabideen Gida egiteko pertsona kontratatuko du. Haren egitekoa turismo-, natura-, monumentu-baliabideak, ospakizunak, kultura jarduerak, kirola egiteko baliabideak, zerbitzuak, eskaintzak eta beste jasotako behar-koditu. Lana egin nahi dutenek honako baldintzak bete beharko dituzte: Etxarri ongi ezagutzea; euskaraz eta

gaztelaniaz ongi idazten eta itzultzen jakitea eta oinarritako informatika baliabideak, ikus-entzunezkoak eta grafikoak erabiltzen jakitea. Interesatuek curriculumak hilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Udaletik gaztigitu dutenez, interesa autonomoa ez bada edo ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda ez badago, kontratu aurretik altan eman beharko du. Deialdiari buruzko argibideak udal-txan emanen dituzte, 948 460 004an.

Beilatoki parean kontzentrazioa

Heldu den asteazkenetik aurrera astero, 20:00etan, Etxarri Aranatzeko beilatokia jarri nahi den lokalaren parean kontzentrazioa egingen da. Beilatokiaren kokapenarekin desadostasuna azaldu nahi dute deitzaileek. Jakina denez, pisu eraikineko hainbat ateetako aldamenak beste kokapen bat eskatu dute beilatokiarendako eta sinadura bilketa sustatu dute ere.

Bulego eraikina



Larrazak azaldu zuenez, urbanizazioaren %10eko aprobetxamenduaren truke udala bulego eraikina jasoko du. Hori hitzarmenean lotu nahi dutela azaldu zigen alkateak. "Eraikin handia da eta prestakuntzari begira zerbait egin nahi dugu. Sakanako Garapen Agentziarekin (SGA) hitz egin dugu. Eta Nafar Larrazarekin prestakuntzarako saioak hartzeko hitz egingen dugu". Enpresa mintegi bat jartzearen inguruan Larrazak esan zuen SGArekin aztertu dutela eta Nafarroako Gobernuarekin ere hala egingen dutela. "Industrialde barruan 3.0 edo 4.0 prestakuntza egotea egoki ikusten dugu". Jose Mari Aierdik gaineratu zuenez, zati bat mintegia litzateke.

Arakil eta Irurtzunen industrialde berria

Inasa zena industrialde bihurtuko da



Datuak

145.000 m2 azalera.
100.000 m2 Inasarenak ziren.
45.000 m2 gehiago eskuratu dira guztia behar bezala egiteko.
100.000 m2 Irurtzunen daude.
45.000 m2 Arakilen daude.
90.000 m2 partzela
60.000 m2 partzela Irurtzunen
30.000 m2 partzela Arakilen

Epeak

2016 bukaera Hirigintza plana aurkezpena.
2017ko hasiera Eraisteak, premiazko azpiegituren egokitzapena eta kutsadura kentzeko prozedura hasi.
2018ko garagarria Epeko urbanizazioa hasiko da. Eskaeraren arabera inbertsioak egingen dira.

Lehendakariordeak gogora ekarri du Inasaren itxierak 170 langileren kaleratzea ekarri zuela. “Eskualdeak gainbehera egiteko aukera zegoen”. Aierdik aitortu du ekimena Arakilgo eta Irurtzungo udalek abiarazi zutela. Itxieraren ondoren bi udalek etorkizunagatik eta langabeziagatik kezka azaldu zioten departamentuari. Erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana nabarmendu ditu.

Udalen ekimena

Irurtzungo alkate Aitor Larraza Carrerak esan duenez, “ekimenak Inasa zena berreskuratzen ez badu ere, eskualdearen industria-garapenerako bidea zabaltzen du. Horrelako erabakiak hartzea zen gure asmoa, eta ahalik eta hobekien gauzatzea. Gure helburua Irurtzunen eta Sakanan lan egin eta bizitzea da”. Sortu daitekeen enpleguaz aparte, industrialde berria dauden enpresak egonkortzeko balioko duela adierazi du Larrazak. Arakilgo alkate Goio Santesteban Nuñezek duela urteko panorama baino hobea dela nabarmendu du. Ekonomia suspertzeko ekimenak izanen duen garrantzia azpimarratu du.

Eskaera

Nasuvinsako zuzendari kudeatzaile Jose Mari Aierdik adierazi duenez,

“eskualdean orain dagoen eskaerari erantzuna emateko aukera dugu honekin”. Sapak pabiloi bat eskuratu duela eta dagoeneko han lanean dela (8.000 m2 inguru) eta beste bat eskuratuko duela jakinarazi du. Logistika beste bi enprekin heldu den astean lur eta nabe banaren okupazioa sinatuko dutela aurreratu du (4.000 m2 inguru bakoitzak). Beste hiru enpresek bere jardueraren hurrengo kartzeko negoziatzen ari dira. “Beraz, uste dugu birsorkuntza eta ekonomia-jardueraren sorrera azkarra izan dela uste dugu”. Aierdik esan duenez, dauden eskaerei erantzuna emateko Sakanan industria-lurra falta da. Irurtzungo industrialdean interesa azaldu duten enpresak nafarrak direla jakinarazi du Aierdik.

Industrialde berriak hainbatekonomia-jardueraren hartuko dituzte, segurtasun neurriak, suteen kontrako neurriak eta beste beharko dituzte. Horregatik, hainbateiraikin bota egingen dituzte. Bulegoen eta pabiloien artean dauden bi eraikin txikiak dira horietako batzuk. Bestetik, bi pabiloien artean dagoen kalea zabaltzeko egingen da eta horretarako mendealdeko pabiloien zati bat bota egin beharko da. Bestalde, bulegoen eraikinean enpresa mintegia edo prestakuntzara bideratzea aztertzen ari dira Nafar Lansareketa Gobernuak. +www.guaixe.eus

adierazpenak >>

Manu Aierdi

Aurreratu zuen enprekin aurretik lana egin dutela eta “eskaera pixka bat ziurtatuta” dutela. “Lehenengo fase bat bideratzeko nahikoa eskaera badugu”.

Sakanako Industrialdeen Inbentarioaren arabera 10 partzela eta 27 nabe hutsik daudela gogorarazi genion eta Aierdik udalekin eta elkarrekin egindako lan isila aldarrikatu zuen. Gaineratu zuenez, “batzuetan nabe zaharrek zailtasunak eta kostuak dituzte”. Hala ere, horrelakoetarako diru-laguntza deialdiak badaudela gogorarazi zuen.

Eta gaineratu zuen: “diru-laguntzek laguntzen dute, baina enpresariak erabakia hartzen badu, bere negozio plan edo eredu oinarriak dituela da, eta etorkizunari begira ziur dagoela.

Hori da behar duguna: ekimenak, enpresariak, ekintzaileak. Lanpostuak sortzen eta mantentzen kriston gizarte-ekarpena egiten dute”. Horregatik, gobernuaren atea zabalik izanen dute.

Jose Mari Aierdi

Azaldu zuen nabeak oso handiak direla, eta ez dela berdina izanen bat osoa edo zatiak saltzea. “Azpiegitura gehienak non jarri, ideia badugu (argindarra, gasa, ura). Sakanako Industrialdeen Inbentarioaren berri gogorarazi eta Nafarroako beste eskualdeetan gauza bera egingen ari direla, “industrialde berriak egin aurretik horiek merkaturatu jartzeko”.

Inasako eta Altsasuko lurretan interesa azaldu duten enpresak nafarrak direla azaldu digu, “batzuk orain Nafarroan lan egiten dute eta beste batzuk kanpoan daude eta hemen agentzia bat zabaltzeko nahi dute”.

Fernando Carrion

Inasako enpresa batzordeko kidea zen lantegia itxi zutenean. Ostira-lean berriro lantegian zegoen, oraingoan Irurtzungo zinegotzi delako. Hark esan zigunez, “ate bat itxi da, baina, agian, orain beste bat zabaltzeko da.

Ez dakigu. Printzipioz albiste ona da”. 2013ko agorriaren erdialdean majo egurtuta atera zituzten langileak Inasatik. Itxiera “traumatikoa” izanda ere, “bizitza horrela da eta aurrera joan beharra dago”. Kaleratu zituzten 170 langileak ondoren ere antolatuta segitzen dute Baikap enpresa epaitegira eraman baitzuten.

Alde batetik, kereila jarri zuten zuzendaritzak enpresa propio itxi zuelakoan. Bestetik, pentsioen osagarri gisa funts bat zuten langileak eta Baikapek hura beretako hartu du. Langileek epaitegian salatu dutela esan zigun Carrionek: “prozesu luzea izanen da eta ikusiko da nola bukatzen den”.

Sarrerak-irteerak



Inasa zenaren pabiloien artean dagoen kalea industrialdeko kalea bihurtuko da. Larrazak azaldu zigunez, etorkizunean kale hori trafikoa bideratzeko eta herri erditik zirkulazioa kentzeko erabiltzea nahi lukete. Horretarako, Izurdiagarako errepidearekin lotuko litzateke. Larrazak

gaineratu zuenez, Irurtzungo Udalen nahia litzateke noizbait kale hori Izurdiagarako saihesbidearekin bat egin eta Iruñeko norabidean autobiarekin bat egitea. Industrialde berriaren sarbideez galdetuta, Santestebanek Herri Lan Departamentuarekin bilera aurrei-

kusia dagoela jakinarazi zigun: “Gasteiz eta Donostiarako autobiarako irteera erraz egin daiteke. Iruñeko beste kontu bat da”. Irteera horiek Arakilgo lurretan izanen lirateke eta izanen lukeen eragina aztertu beharko luketela nabarmendu zigun Santestebanek

Aitor Larraza Carrera

Irurtzungo alkateren iritzi Inasaren itxierak “eskualdea nahiko pata utzi zuen. Herritarrek nahiko gaizki eta hustuak sentiarazi zituen. Ez du lehengo egoera hori berritzen baina udalen halako ekimen batekin industria jarduerara bideratzen du berriro”. Ekimena bi udalek elkarrekin bideratzea ego-

ki jo zuten. Nasuvinsarekin batera jarraipen batzordean biak egotea eskatu zuten.

Urbanizatzeke udalak eta Nasuvinsahitzarmen bat negoziatzen ari dira. Jose Mari Aierdik 2018ko data aipatu duela gogorarazi zuen Larrazak. “Eskaeraren arabera lizentziak emanen ditugu”. Sapak hala egin duela gogorarazi genionean Larrazak esan zuen: “honekin enpresari egonkortasuna ematen diozu eta aurrera begira jarri”.

Goio Santesteban Nuñez

Arakilgo alkatea Inasako langilea izan zen eta lantegia halako ikustean “inpresioa eta tristezia” sentitu zituen. “Baina animoekin departamentuak hura suspertu nahi duelako. Pasatutakoa pasa da”. Departamentu suspertzean busti delan nabarmendu zuen Santestebanek. “Orain aukerak aztertu beharko dira. Gauzatzea

kostako da”, baina horretarako lan egingen dutela gaineratu du.

Urbanizazioa egiten denean Arakilgo Udala aprobetxamenduen %10 jasokodu eta alkateak esan zigun zenbatetan on jasokoduten jakiteko goizter dela. “Orain garatu dadila. Enpresarien kezken arabera izanen da hori”. Sapak lurrak eta pabiloioak hartu dituzte urbanizazioa hortik hasi kodela uste du alkateak. “Gero enpresak etor daitezela, etenik gabe. Eskaerari moldatu beharko da industrialdea”.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



Juan M^a Ganboa Azpiroz



Eskerrak eman nahi dizkizuegu,
momentu triste hauetan, gure ondoan egoteagatik

Familia

Lakuntza



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Petra Villar Rota



(Agustin Flores Lakuntza zenaren alarguna)

Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak.

Agur, izeba!

Zure ilobak

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Altsasun etxebizitza itsasia salgai.
300 m². Jantzita. Tel 670 276 457
Aintzane eta 600 495 243 Pello.

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Irakasle bat Irurtzunen. Gaitekin erabiltzen den atabala jotzeko irakasle bat bilatzen ari gara klaseak emateko. Tel 636 753 976 Ana.

IKASTAROAK

Produktuen merkaturatzea. Lehen sektoreko produktuen merkaturatze egokirako gakoak ikasteko. Lastailaren 17an eta 19an, astelehenean eta asteazkenean, 16:00etatik 19:00etara, dohai-nik, Arbuziko industrialdean dagoen Utzaganen. Sakanako Garapen Agentzia.

Desfibriladore ikastaroa Uharte Arakilen (urriak 20-21) eta desfibriladore ikastaroaren birziklapen ikastaroa (urriak 27). Lakuntzan.

Sakanako Mankomunitateak, CEIM eta Uharte Arakilgo udalaren laguntzarekin, desfibriladore erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatuta du urriaren 20an eta 21ean, 16:30etik 20:30era, Uharte Arakilgo udaletxean. Sorosleei, udal langileei, irakasleei eta sorospenetan interresa daukan edozeini zuzendua dago. Ikastaroan bihotz-birikietako erreanimazioak, itotzeak eta bizia arriskuan jartzen duten egoeren aurrean zer egin eta desfibriladorearen erabilera aztertuko dira, besteak beste. Bestalde, arautegiak bi urterto desfibriladore titulua mantentzeko erreziklatze ikastaro bat egitea eskatzen du. Horrela, Nafarroako Gobernuak osasun departamenduak emandako titulua daukaten guztiei, Nafarroako Kirol Institutuak 4 orduko ikastaroa eskainiko die Lakuntzan, Mank-en egoitzan, urriaren 27an, arratsaldeko 16:30etik 20:30era. Bi ikastaroetan urriaren 11 baino lehen eman beharko da izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirorlak@sakana-mank.eus). Bi ikastaroetan gehienez 24 parte-hartzaile errendako tokia dago, eta beharrezkoa balitz, itxaron zerrenda eginen litzateke.

TXAPELKETA
Barandi tabernaren bigarren partxis txapelketa. Urriaren 31n hasiko da, astelehen eta asteazkenean. Bikote bakoitzak 10 € ordainduko ditu. Partidak 21:30ean hasiko dira. Izen-ematea urriaren 27ra arte. Tel 948 46 91

TXAPELKETA

93.Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa. 16 urte gorakoek eman dezakete izena; banaka, binaka eta taldeka parte hartu daiteke, a capella kantatuz, musika tresnen laguntzaz eta audio baten laguntzaz. Izen-ematea hilaren 26an despedituko da: nafarroakoeskalkantu@gmail.com e-posta edo Facebook-eko Nafarroako

93.Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa.

16 urte gorakoek eman dezakete izena; banaka, binaka eta taldeka parte hartu daiteke, a capella kantatuz, musika tresnen laguntzaz eta audio baten laguntzaz. Izen-ematea hilaren 26an despedituko da: nafarroakoeskalkantu@gmail.com e-posta edo Facebook-eko Nafarroako

Euskal Kantu profila.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarietako aldeko abenduaren 30 ekinen parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrantea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Helduen Nafarroako Euskal Kantu Jaialdia.

Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako

erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.

Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Volkswageneko langileendako deia.

Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte baka-rra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa.

Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean.

Landare utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa

jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren aztertea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Errefuxiatuendako material bilketa.

Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAK. Altsasun, Frontoi zeharbidetaren 14an udalak duen bajeran, astelehen

eta ostiraletan, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzan, udaletxe eta estalopeko eskubiko atean, astearte eta ostiraletan 17:00etatik 19:00etara.

Eplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzatenak duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

JAIOTZAK

- **Urko Gorritxo Blanco** irailaren 21ean Etxarri Aranatzan.
- **Izane Unzilla Aiertza** urriaren 7an Etxarri Aranatzan.

EZKONTZAK

- **Fermin Zornoza Ortiz de Galisteo eta Maite Barrenetxea Gomes** urriaren 15ean Olaztin.
- **Sergio Goñi Murgia eta Marta Lopez Bartolome** urriaren 17an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

SAKANA

Asviamin elkarteak sortu da

Amiantoak kaltetutako pertsonak eta sendiak laguntzea du helburu

Nafarroako Amiantoaren Biktimen Elkarteak, Asviaminek, eratzeko batzarra herenegun egin zuen Altsasun. 26 pertsona elkartu ziren bileran eta ardurak banatu zituzten: Elena Herrero Martinez tafallarra izanen da lehendakaria (amiantoak eragindako gaitzarekin hil zitzaion ama); lehendakari ordea, Julian Ilintxeta Domeneix; idazkaria, Manuel Paniagua Martin eta diruzaina, Josune Ben-

goetxea Agirrebengoa (azken hiruak altsasuarrak).

Estatutuak onartu zituzten eta haiek elkarten erregistroan aurkeztuko dituzte. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendurreko aldia pasata, 2017ko hasieran elkarteak martxan izatea espero dute. Elkarteak eratzeko aurreneko bilera joan den urteko azaroa akaberan egin zen. Prozesu guztian Euskadiko elkarteak eta Jesus Uzkudun izan dituzte laguntzaile.



Elkartearen eratzeko bileran 26 pertsona bildu ziren, batzuk entzule modura.

gertutik >>

Jesus Uzkudun

Asviamineko kidea

Zein helburu ditu elkarte berriak?

Aurreneko gauza da gaixo denak laguntzea. Batez ere gaixotasuna aitortzen eta kalte ordainak jasotzen. Bestetik, jendeari zein arazo dagoen jakinarazi. Horiei gaixotasunak azaleratzen lagundu eta, bestetik, osasun zaintzan jarri amiantoarekin lan egin duten guztiak. Euskal Autonomi Erkidegoan, azken urtetan, 3.000tik 7.400era osasun zaintzan gaude. Eta uste dugu hurrengo urteetan hori bikoiztu egingen dugula.

Osasun zaintzan sartzeko zer egin behar du batek?

Nafarroako Lan Osasunaren Ins-

titutuak aztertu behar du. Hara idatzi bat aurkeztu behar da, amiantoarekin orain edo lehen lan egin duela azaltzen duten probekin. Haiek aztertu ondoren eskatzailea osasun zaintzan sartzen dute. Kalterik ez izan arren, bihar minbizi bat sortzen bazait, dokumentu ofiziala dut.

Hor egoteak ekartzen du osasun zaintzarekin gaixotasuna lehengo harrapatzea. Eta, bestetik, batek minbizi daukanean oso indar gutxi dauka bueltara hasteko. Baina lehendik egingo bada ia-ia automatikoki gaixotasuna aitortzen diote, nahiz eta enpresak edo beste zenbaitek oztopoak jarri. Gauza horiek gaitzuzteko zerranda horretan egotea oso garrantzitsua da.

Asviamin-eko kide zein izan daiteke?

Edozein gaixo edo amiantoarekin

lan egin duena, senidea edo laguntzeko prest dagoena. Edozeinek. Urteko 20 euroko kuota proposatu da. Horrekin, epaitegira joaten garenean erantzun kolektiboak azaldu. Ez utzi bakoitza bere borroka gogorrean bakarrik. Kolektiboki erantzun.

Nongoak dira etorri direnak?

Altsasu, Olatzagutia, NARBARTETA eta Tafalla. Iruñetik eta Erriberatik ez dute posible izan etortzea. Nafarroa osoa hartu nahi dugu eta jendea protagonista izan dadila.

Urte berrirako martxan?

Lehenbailehen nahi genuke, hitzaldiekin jo eta ke. Informatzeko. Nere esperientzia da, behintzat, hitzaldia ematen dugun bakoitzean jende berria agertzen dela. Merezki du.

Nafarroan beste elkarteren bat

sortzekotan daude. Zer dakizue?

Gutxi. Zenbait hedabidetan agertu dira. Denok batera elkarte bakoitza sortzeko aukera eskaini genien. Ez dute ezer nahi. Arriren gaituena da enpresak ari direla hori bulkatzen. Normalean guk enpresak epaitegian opatu ditugu, eta gure kontra. Orduan, susmo txarra hartzen diogu. Gure elkartearen edozeinendako dago lekua, helburu horiekin lan egin behar da. Kolore eta ideologia guztietako jendea parte hartzea nahi dugu.

Asviaminek beste elkarte batzuekin harremana izanen du, ezta?

Beti konfederazio ideia planteatu dugu. Nafarroak bere berezitasunak ditu eta bere autonomia behar duela uste dute. Baina elkarlana ere behar du. Oso gertu gaude. Esta-

tuan dauden beste elkarte batzuekin ere borroka garbia dago: EAEko eta Nafarroako parlamentuek konpentsazio funtsa eskatu dute eta Rajoyren gobernuari ez zaio inolako borondaterik ikusten. Hortik pixka bat bultzatzea eta estutu beharko dugu.

Nafarroan amiantoak kaltetutakoentzako daturik badago?

2.000 pertsonatik gora daude. Horien indarrak bildu behar dira. Udan gertatu zen: Seat-en lan egin ondoren mesoteliomakin hil zen. Gaixotasuna aitortu baina denbora pasa zitzaion kalte-ordainik eskatu gabe. Inork ez ziolako esan. Elkarteak gaixotasunak aitortu eta kalte-ordainak eskatzeko, poltsikoak ukitzen dituzten gara. Hurrengorako enpresetan neurriak har ditzatela.

>> Etxarri Aranatz

Gaztetxokoa berriro ere martxan da

Lastailetik maiatzera, zabalik egonen da; larunbatetan, 17:00etatik 21:00etara, eta igandetan, 17:00etatik 20:30era

Bigarren denboraldiari ekin dio Etxarriko gaztetxokoak. Joan den asteburuan gazteendako ate irekien jardunaldia antolatu zen eta hilaren 31a arte, matrikulazioepea zabalik dago. Gaztetxokoa denboraldi guztian erabili nahi duenak 30 euro ordaindu behar ditu. Familia ugariak, guraso-bakarreko familiek edota biolentzia matxista jasan dutenek, %20ko beherapena izanen dute. Matrikula gaztetxokoa bertan edo udaletxean egin daiteke.

Etxarriko gaztetxokoa, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, neska-mutilak neguko asteburuetan egoteko eta ongi pasatzeko toki bat izan dezaten nahi da. Gaztetxokoa, meistrumais-tran etxeko sotoan kokatuta dago. Udalak, aisialdirako begirale bat kontratatatu du gaztetxokoa lan



Gaztetxoen %83a kokapenarekin ados dago. UTZITAKOIA

egiteko. Horretarako, lan poltsa bat osatu du.

Gaztetxokora hurbiltzen diren gazteek, begiralearekin batera adostuko dituzte bertan bete beharreko arauak eta baita asteburuko jarduerak ere. Beti ere, denboralibrea eta gidatutako tailerrak txandatu. Bertan, mahai joko desberdinak, futbolina eta ping-ponga daude. Pelikulak ikusteko eta hitzaldi eta tailer desberdinak lantzeko txoko desberdinak ere badaude.

Batzordea

Gaztetxokoaren proiektua aurrera eramateko batzorde bat osatu zuen udalak. Bertan daude begiralea, alkatea eta zinegotziak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako prebentzio eta droga-menpekotasun hezitzailea eta Kultur, Kirol eta Gazteria teknikaria ere. Batzordeak, gaztetxokoaren nondik norakoak eta bertako joan-etorrien jarraipena egiten du. Kide guztien arteko koordinazio lana batez ere,

>> Irurtzun

365 euskaraz bideoaren mustutzea

Gaur, 20:00etan, kultur etxean. Eta iganderako bi ibilaldi

Euskarak 365 egun kanpainaren barruan Aizpeak, Irurtzunge euskaltzaleen elkarteak irurtzundarrak eta arakildarrak kamara aurrean jarri izan ditu. 2014an lip-duba egin zuten horrela eta joan den urtean stop-motiona. Aurten berriro ere kamara aurretik pasa da makina bat jende, baina Hamai-ka aldiz taldearen doinuei eta Julio Sotoren bertsoari irudiak jartzeko.

Bi ibilaldi

Haur eta helduendako ibilaldi bana antolatu du iganderako Aizpeak. Biak ere Foru plaza izanen dute abiapuntua, 11:00etan. Helduek dermioan barna pasioa emanen dute herriko toponimia eza-gutzeko. Toki izenen berri Manolo Morenok eta Santos Iragak emanen dute. Bere garaian Irur-



Euskaraz aritzeko ibilaldia.

tzunge toponimiari buruzko ikerketa egin zuten eta baita mapa argitaratu ere.

Helduak toki izenak ikasten dituzten bitartean txikiak Altxorraren bila jolasean parte hartuko dute. Herrian barnako euskarazko jokoa Garazi Ortizek eta Maddi Urrak dinamizatuko dute. Bateko eta besteko parte-hartzaileak 13:00etan bilduko dira plazan, otamenean.

Kirola >>

Txirrindularitza

Maialen Aramendiak erorikoa izan zuen Mundialean

Iturmendiakoak 72. postuan despeditu zuen lasterketa

Ostiralean Dohako Munduko Txirrindularitza Txapelketetako emakumezkoen junior mailako lasterketa jokatu zen. Elisa Balsamo italiarra izan zen azkarrena (1:53:04) eta urrezkodominajantzi zuena. Espainiar selekzioarekin lehiatu zen Maialen Aramendia iturmendiarrak 72. postuan sailkatu zen, 10:02ra. Erorikoa izan zuen Aramendiak, eta horregatik sartu zen atzeratuta.

ERBITI, LASTERKETA BUKATU ZUEN ESPAINIAKO SELEKZIO-KO KIDE BAKARRA

Bestalde, txirrindularitza mundialen gizonezkoen linea lasterketan 257 km-ko lasterketa izan zuten aurrez aurre txirrindulariek, Aspirin hasi eta La Perla irlan despeditu zena. Proba lau zenez, esprinterrak ziren faboritoak eta hala izan zen. Gainera, tenperatura oso altuei eta haize abanikoei egin zieten aurre txirrindulariek. Bukaeran, esprint estuan Peter Sagan eslobakiarra gailendu zitzaion Mark Cavendish britainiarri eta Tom Boonen belgiarri. Hiriberriko Imanol Erbiti 33.a sailkatu zen, 5:26ra. Erbiti izan zen proba despeditu zuen Espainiako selekzioa kide bakarra. Erbitik haizearen eraginari egotzi zion emaitza kaxkarrak. "Haizea duten lasterketak horrela dira, asko eman ahal dizute eta asko kendu" esan zuen arakildarrak.

Pilota

Ezkurdiak bihar Aimar arerio

Lau t'erdiko final laurdenetako lehen jardunaldian Ezkurdiak Retegi Biri 11 eta 22 irabazi zion Altsasun. Bihar, Labriten, Aimar Olaizola du zain

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako lehen jardunaldian Ezkurdiak Retegi Bi izan zuen aurkari Altsasun. Mattin anaia izan zuen botillero arbizuarrak, nonbait enpresa bereko bi pilotariren arteko partidatan ezin izango baita enpresa horretako pilotari den bat botillero izan. Hortaz, Irujo ezin zen laguntzen aritu.

Arretxe II.aren kontra ez bezala, arbizuarrak nerbioei ongi eusten jakin zuen eta partida dominatzeko ez zuen aparteko arazorik izan. Hasieratik erritmoa ezarri

Lau t'erdiko final laurdenetako 1. jardunaldiko emaitzak

Retegi Bi 11 / Ezkurdiak 22
Olaizola II.a 22 / Bengoetxea VI.a 19
Iribarria 22 / Victor 14
Urrutikoetxea 22 / Altuna III.a 7

Lau t'erdiko final laurdenetako 2. jardunaldiko partidak

Ostiralean, 22:00etan, Donostian: Victor - Altuna III.a (ETB1)
Larunbatean, 17:45ean, Iruñean: Olaizola II.a / Ezkurdiak
Larunbatean, 18:00etan, Bilbon: Iribarria / Urrutikoetxea
Igandean, 17:00etan, Eibarren: Bengoetxea VI.a - Retegi Bi (ETB1)

"Bukaerara arte txisparekin heltzea, gakoa"



Material aukeraketan pilotekin ez zen arazorik egon, baina Ezkurdiak saskian pilota biziagoak faltan bota zituen. "Retegi Biren kontra erasokor izan nintzen eta sentsazioak onak izan ziren. Baina konturatu naiz gauza asko ditudala hobetzeko" adierazi zuen Ezkurdiak. Aimar arerio gogorra da, faboritoa. "Aimarren kontra beti pasatu izan zait gauza bera. Lehen zatian nor baino nor jokatzen diot eta markagailuan aurreratzea lortzen dut. Baina bigarren zatian, ez dakit fisikoaren eragina edo mentalitate kontua den, berak irabazten bukatzen du. Uste dut gakoa partida bukaerara txisparekin iristea dela, bukaera arte erasora jokatu eta abiadura jartzea. Hasieratik nire erritmoa ezartzea, horrela bakarrik izango dut aukeraren bat. Bestela, pim pam harrapatzen zaitu eta sake errematearekin partida bukatzen du" gaineratu zuen. Aimarrek Ezkurdiak "aurkari oso arriskutsua" dela onartu zuen "txapelak irabazteko aukera handiak" dituenak. "Partida konplikatu izango da, distantzia honetan Josebak asko jokatzen duelako eta pilotari abiadura handia ematen diolako" nabarmendu zuen lau t'erdiko 7 txapel dituen goizuetarrak.

zuen Ezkurdiak, 1 eta 6 aurreratuz. Retegi Bi gerturatu egin zen, 7 eta 9, baina Ezkurdiak tanto takada ederra egin zuen jarraian, presioari eusten jakin zuen eta, azkenean, 11 eta 22 irabazi zuen.

Orain Aimarren kontra

Ezkurdiaren hurrengo arerioa ez da motza. Bihar, larunbatean,

Labriten, Oinatz Bengoetxea irabaztekin datorren Aimar Olaizolaren kontra aritu beharko du arbizuarrak. Jokoan dagoen bigarren puntu hori oso garestia da, puntua lortzen duenak finalerdietan hanka eta erdia izango baitu. Enpresa ezberdinetako pilotarien arteko partida denez, Irujo izango du botillero arbizuarrak.

Supermotard



Fernando Urra, Espainiako Supermotard txapelduna

Larunbatean Alcarraésen jokaturako azken proban bigarrena izan zen olaztiarra baina Master 35 mailako txapelketa irabaztea lortu du

Larunbatean Espainiako Supermotard Txapelketako baliagarria zen azken lasterketa jokatu zen Lleida-ko Alcarraés zirkuituan. Master 35 mailan lehiatu zen Fernando Urra pilotu olaztiarra (Husqvarna 450). Zirkuituan asfaltoak eta lurraz zuten tokia eta oso ibilbide konplexua zen osatu beharrekoa. Hiru tanda egin behar ziren. Lehenengo tanda hasierakoan hainbat pilotu lurrera erori ziren eta haiek saihestu eta gero, atzeko postuetan kokatu zen olaztiarra. Baina gutxinaka pilotuak aurreratzen hasi zen Urra eta, azkenean, bigarren postuan bukatu zuen olaztiarrak eta lortutako 20 puntuei esker sailkapen orokorrean lider kokatu zen, bigarren sailkatuari 57 puntu aterata. Txapelketa ziurtatuta, gainontzeko bi tandatan gozatera ateratu zen Urra. Denboraldi guztian barna Husqvarna 450 motorra puntuan jartzeko egindako lanak fruitua eman du. Espainiako Supermotard Txapelketako txapelduna izan da Fernando Urra, Master 35 mailan. Zorionak.

BTT

Rio Lobos arroilan ibiltzeko aukera

36,5 km-ko BTT ibilbidea antolatu du Mank-ek urriaren 30erako

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Barranka Txirrindulari Taldearen laguntzarekin, BTT irteera antolatu du urriaren 30erako. Soria eta Burgosen artean dagoen Rio Lobos arroilean 36,5 kilometroko bizikleta ibilaldi ederra egitea da egiten duten proposamena. Ibilbidea ertain-erraza da eta bertan bazkaltzera geldituko dira txirrindulariak.

URRIAREN 26RAKO

Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Altsasuko autobus geltokitik. Izena ematea zabalik dago (10 euro) urriaren 26ra arte, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).

Motoziklismoa / Enduro

Enduroko Sei Egunak: Mugika 31.a sailkatu da C1 mailan eta Berazak ezin izan zuen proba bukatu

Irañetakoari motorra apurtu zitzaion eta altsasuarra, aldiz, aurreikusitako baino hobeto ibili zen

Aurreko astean jokatu ziren, Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituan, 2016ko Enduroko Sei Egunak edo ISDE (International Six Days Enduro), mundu mailako enduro proba garrantzitsuenak, Enduro Olinpiadak. Munduko 33 herrialde ordezkatu zituzten 600 pilotu baino gehiagorekin. Pilotuek hiruko edo lau taldeak osatu zituzten eta guztira 1.000 km-ko ibilbidea egin behar izan zuten, sei egunetan. Estatu Batuetako selekzioa izan da Enduroko Sei Egunen txapelduna.

Lehiatu ziren pilotuen artean 9 nafar zeuden, bisakandar tartean, Marcos Beraza irintarra eta Unai Mugika altsasuarra. "Enduroa maite dugunondako summuma da ISDE, bizitzan behin egin beharreko gauza, ahal izanez gero. Eta aurretik etxean jokatu zenez, bertan aritzera animatu ginen" adierazi

Mugika, egindakoarekin pozik



Bere mailan, C1 mailan, sailkapen indibidualean 31.a sailkatu zen Mugika, 120 pilotu ingururen artean. Taldekako sailkapenean, bakarrik geratzen, azken aurrekoa sailkatu zen. "Sekulako esperientzia izan da, gogorrago egingo zaitzaidala uste nuen. Uste dut munduko onenen artean egoteak airea eman zidala. Proba bukatzearekin konformatzen nintzen, baina 31.a sailkatzea ez nuen espero eta oso kontentua nago" adierazi digu altsasuarra. Denboraldi bikaina daroma Unai Mugikak. Espainiako Enduro Txapelketan laugarrena sailkatu da bere mailan, Senior B mailan. 27 segundogatik ez da podiumera igo altsasuarra. Espainiako Cross Country txapelketan, aldiz, laugarren postuan dago.

digu Mugikak. Helburua enduroaz disfrutatzea eta ahal izanez gero proba bukatzea zen. Unai Mugikak Larragako Iker Artxankorekin eta

Azagrako pilotu batekin osatu behar zuen taldea, baina Azagrako ezin izan zuen aritu eta Manuel Mazoy andaluziarra jarri

zuten bere partez. "Ez genuen pilotu andaluziarra ezagutu ere egin, probaren lehendabiziko egunean erretiratu egin zelako. Larunbatean, azken aurreko egunean, Ikerrek erorikoa izan zuen eta lepa zaita apurtu zuen. Bakarrik geratu nintzen, baina Sei Egunak bukatzea lortu nuen eta hori, niretako, handia izan da" nabarmendu zuen.

Berazaren arazoak

Aldiz, Enduroko Sei Egunak ez dira Marcos Berazarendako horren gozoak izan. Irintarrak Sergi Casain katalandarrarekin eta Jaime Perez andaluziarrarekin osatu zuen taldea, C2 mailan. Bigarren egunean erorikoa izan zuen. Laugarren egunean motorra ezin arrankatu ibili zen, motorrari bultzaka. Eta azken aurreko egunean, larunbatean, motorraren aurreko zenbait arradio apurtu zitzaizkion eta erretiratu egin behar izan zen. "Zortea ez dut lagun izan" azaldu zuen.

Atletismoa

Iraitz Senar seigarrena Donostian eta Raul Audikana laugarrena Lizarran

Sakandarrak III. Katxalin Bularreko Minbiziaren Laguntzaren Aldeko lasterketan

1.	Ismael Tome	17:50
6.	Iraitz Senar	19:25
222.	Andrea Galbete	32:13
522.	Erkuden Mendinueta	35:55
767.	Nerea Acebes	40:53

Sakandarrak IV. Iranzu herri lasterketan (5 km)

1.	Alberto Azparren	17:31
4.	Raul Audikana	18:16
6.	Francisco Codon	18:50

Sakandarrak 15 km Donostiako Klasikoan

1.	Antonio Etxeberria	47:41
152.	Adur Senar	58:22
240.	Gorka Acebes	1:00:08
460.	Gaizka D. de Garayo	1:04:46
468.	Jorge Iradi	1:04:57
1064.	Iban Martin	1:12:54
1312.	Iñaki Mauleon	1:15:53
1404.	Maria Goena	1:17:02
1476.	Marian Ijurre	1:18:02
1590.	Jesus Arzoz	1:19:34

III. Katxalin Bularreko Minbiziaren Laguntzaren Alde lasterketan arituzen lakuntzarrak eta IV. Iranzu Herri Lasterketan olaztiarra

Asteburuan makina bat lasterketa jokatu dira. Tartean, Donostian III. Katxalin Bularreko Minbiziaren Laguntzaren Alde proba osatu zuten, igandean, 795 korrikalariak. Ismael Tomek irabazi zuen (17:50) eta Iraitz Senar lakuntzarrak 6.a sailkatu zuen (19:25).

LIZARRAN ETA DONOSTIAN

Aurreko egunean, larunbatean, IV. Iranzu herri lasterketaren txanda izan zen, Lizarran. 5 km-ko lasterketa Alberto Azparrenek irabazi zuen (17:31) eta Raul Audikana olaztiarra 4. postuan sartu zen (18:16). Bestalde, 15 Km-ko Donostiako Klasikoa Antonio Etxeberria iruindarrak irabazi zuen (47:41), proba despeditu zuten 2.554 korrikalariaren artean gailenduz. Adur Senar lakuntzarrak 152.a sailkatu zuen (58:22).

Atletismoa

Sakanako Herri Lasterketa bihar jokoan Lakuntzan

Bihar, larunbatean, 17:00etan kategoria txikiak probak hasiko dira eta 18:00etan proba nagusia (8 km) eta Osasun Martxa (3 km)

Aurten Lakuntzak hartuko du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako XVI. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia. Guztia prestatzeko Lakuntzako Zabalar-te klubaren, Dantzaleku Sakana klubaren, Lakuntzako Udalaren eta Lakuntzako Pertza elkartearen babesak izan du Mank-ek. Burundesa da probaren babesle nagusia, Sakana koop fundizioa, Sakana laser eta Lacunza Kalor Group enprekin batera.

Asteartean aurkeztu zuten lasterketa Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak eta Zabalar-teko eta Lakuntzako Pertza elkarteetako kide Nourdine Jdi Babak. "Sakanako herri lasterketarekin atletismoa sustatu nahi dugu, lasterketa herriko bat egin nahi dugu eta Sakanako herriak ezagutzera eman nahi ditugu" azaldu zuten Gerrikagoitiak, Sakanan atletismoak indarra duela nabarmenduz. "Eta ez da ahaztu behar Behobia-Donostia ate joka dagoela. Behobia prestatzeko proba polita da Sakanakoa" gaineratu zuten kirol teknikariak.

Sakanako Herri Lasterketan aritzera animatu dituzte sakandarrak eta bisitariak. "Herrietan sortzen den giroa nabarmendu nahi nuke. Aurreko urtean Urdiainen oso giro polita izan zen. Aurten Lakuntzan hala izatea espero dugu" opa zuten Gerrikagoitiak. Kategoria txikien proban 100 korrikalari inguru aritza eta proba nagusian beste horrenbeste. Zifra horiek aurreikusitakoak dituzte Mank-en.

17:00etan txikiak

Aurrebenjaminetako probak 17:00etan hasiko dira (275 m), ben-

Osasun Martxa (3 km) edo ohiko proba (8 km)



18:00etan abiatuko da Sakanako Herri Lasterketa (8 km). "Herriari buelta ematen dion 3 km-ko zirkuitu handia prestatu dugu. Zirkuitu horri bi buelta eman beharko zaizkio, eta ondoren 2 km dituen zirkuitu txiki bati buelta bat emango zaio. 8 km guztira" adierazi zuen Zabalar-teko Nourdine Jdik. Nourdinek nabarmendu duenez, "zirkuitu oso azkarra da". Kadetei dagokionez, helduekin batera ariko dira, baina 5 km osatu beharko dituzte -Zirkuitu handiari buelta bat eta txikiari buelta bat-. Aurten, nobedade moduan, 3 km dituen Osasun Martxa antolatu du Mank-ek, proposamen bat aintzat hartuta, eta dohain. "Lasterketa luze egiten zaienei begira edo korrika egiten hasi berri direnendako, ibilbide motzago bat egitea pentsatu dugu. Sakanako Herri Lasterketa-koekin batera abiatuko dira, eta hauek soilik buelta bat eman beharko diote zirkuitu handiari (3 km). Honekin, partaidetza bulkatu nahi dugu, jende guztia anima dadila korrika egitera" animatu zuten Gerrikagoitiak. Zabalar-tekoek prestatu dute ibilbidea.

jaminenak 17:05ean (450m), kimuenak 17:10ean (750 m) eta haurrenak 17:20ean (900 m). Kadeteak, aldiz, helduekin ariko dira.

Sariak

Sakanako Herri Lasterketako irabazleek txapela eta herriko produktuak jasoko dituzte. Bigarrenak eta hirugarrenak, lehen sakanadarrek, lehen kadeteek, lehen jubenilek eta lehen betaranoek, hiru mailatan, herriko produktuak ere jasoko dituzte. Peio Goikoetxeak eskainitako masajeak eta herriko produktuak zozketatuko dira. Bestalde, Osasun Martxan parte hartzen dutenen artean 2 pertsonendako bazkari edo afari bat zozketatuko da. Ondoren auzatea izango da.

Izena ematea zabalik

www.kirolprobak.com web gunean eman daiteke izena, gaur, ostiralean, 21:00ak arte (10 euro txip horia eta 9 euro txip txuria). Bihar, 15:30etik aurrera, Lakuntzako udalletean (10 euro txip horia eta 11 euro txip txuria). Osasun Martxakoek, kadeteek eta txikiak ez dute ordaindu behar izango.

Sakanako Kopa

Lakuntzako proba Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sari Nagusirako baliagarria da. Emakumezkoetan Ginesa Lopez doa lehena, Maite Zabaletaren eta Izaskun Beunzaren aurretik. Eta gizonnezkoetan Raul Audikana da lehena, Sergio Garcia de Eulateren eta Alberto Martinezen aurretik.

Onddo lasterketa bikaina

386 partaidek eman zuten izena Onddo Lasterketan eta Onddo paseoan. 37. Eskola Arteko Krosean, berriz, 86 neska-mutiko aritu ziren

Fresko baina eguzkitsu esnatu zen larunbata, Dantzaleku Sakana atletismo klubak antolatutako 9. Onddo Lasterketa ez lehiakorrean aritzeko luxuzko eguna. Iazko urteko bideari jarraituz, 14 urtetik gorakoek 5 euroko inskripzioa ordaindu zuten, bildutakoa Josefina Arregi Klinikaren Lagunak elkarteari emateko.

Goizeko 11:00etan hasi zen 37. Eskolarteko Krosea. Aurrebenjamin mailatik hasita kadete mai-



Adin guztietako korrikalariak, emakumeak eta gizonak, proba hasteko zain.

laraino, guztira 86 neska-mutiko lehiatu ziren Altsasuko Foru plaza eta Zubeztia plaza artean burutu ziren probatan.

11:30etarako oinezkoendako paseoan parte hartzeak zirenak prest zeuden plazan. Onddo lasterketako ibilbide bera zen, baina

alderantzizko noranzkoan, oinezkoak eta korrikalariak elkarren artean traba ez egiteko. Ondoren, 12:00etan atera ziren 9. Onddo Lasterketa ez lehiakorrean (6,5 km) parte hartu zuten korrikalariak. Onddoak ateratzen diren eta haritzez beteta dauden txoko bikaine-

tatik pasa ziren: Otaibarren, Zamarretakozubia, San Pedro, Txanponazpi, Basoitxi, Otadia...

14 urtetik gorako 386 pertsonen eman zuten izena guztira. Kopuru horri paseora gehitu ziren neska-mutikoak gehitu behar zaizkio, eta 37. Eskolarteko Krosean aritu ziren 86 haurrak. Arrakastatsua, beraz. Parte hartzaileen erdia baino gehiago emakumeak ziren. Bukatzera-koan guztiak bildu ziren Altsasuko feriak zirela eta, giro ederrarekin zegoen Foru plazan.

14 urtetik gorakoek onddo eguneko kamiseta jaso zuten eta Altsasuko feriekin lotutako produktuez osatutako 100 lote inguru zozketatu ziren. Jakina, sari preziatuena zozketatutako 3 onddo saskiak izan ziren. Eider Tiscar, Jorge Prieto eta Juan Carlos Gomez izan ziren zortedunak.

Non erabili

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxe-ko produktua doan.

UHARTE GAZTA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxe-ko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10eko deskontua mantentzen piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

ENERITZ

ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

EKIN

ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

IOSUNE MARAURI

ALTSASU

Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€ 948 564 275

Mendia

Anie, Pirinioetara Sakanako Mendizaleekin

Igandean, goizeko 6:00etan aterako da autobusa Olaztitik

Sakanako Mendizaleak taldeak igandean Pirinioetara joko du, Anie igotzera. Autobusa goizeko 6:00etan aterako da Olaztitik, Sakanako beste herrietan geldialdiak eginez. Izena ematea ohiko tokitan egin behar da, edo, bestela, 639 117 631 telefonon.

DANTZALEKU SAKANAREKIN BAIO ETA LEGAIRERA

Dantzaleku Sakana klubeko mendi atalak irteera antolatu du igandearako. Hitzordua goizeko 8:00etan jarri dute, Zelandin, autobus geltokian. Autoekin Arabako San Roman de San Millan-Durrumarajoango dira, bertan aparkatu eta oinez Mirutegiko bidea hartuko dute, Baiora heltzeko. Legaireko zelaietatik barna buelta egin eta gero, Andoingo urjauzira jaitsi eta bertatik San Romana joango dira, oinez. 15 km inguruko ibilbidea da, zailtasun ertainekoa. Informazio gehiago ondoko telefonoetan: 636 441 796 edo 628 159 848.

Botxa



Bi finalistak, Gofi eta Txutxurrin.

14 botxalarien artean Txutxurrin txapelduna

Banakako Botxa Txapelketako finalak jokatu dira Irurtzungo Iratxo elkartearen

Irurtzungo Iratxo elkarteak botxategian 18 botxalari lehiatu dira Banakako Botxa Txapelketan, 4 multzotan banatuta. Hasierako ligaxka eta gero, ostiralean final erdiak jokatu ziren eta, larunbatean, final handiak. Txutxurrin izan da txapelduna, Xabier Gofi 9 eta 12 irabazi eta gero.

Banakako Botxa Txapelketako emaitzak

- Finalerdiak**
Xabier Gofi 12 - Mikel Gelbentzu 0
Santos Iragi 10 - Txutxurrin 12
- Finalak**
3. eta 4. postuetako finalak:
Santos Iragi 12 - Mikel Gelbentzu 3
- Final handia:**
Xabier Gofi 9 - Txutxurrin 12

Mendi Lasterketak

Joxeja Maiza 17.a Hiru Haundietan

Gorbeia, Anboto eta Aizkorri 13 ordu pasatxotan batu zituen

Sakandarrak XX. Hiru Haundietan

1.	Iokin Garai	11:18:25
17.	Joxeja Maiza	13:03:11
21.	Ander Erize	13:15:19
33.	Jon Otermin	13:41:10
34.	Alvaro Ramos	13:43:25
121.	Xabier Bergera	15:41:55
196.	Aitor Salinas	16:42:59
305.	Aran Larrañaga	17:52:41
409.	Joseba Gorritxo	18:51:55

*Oharra: Saillapenean ez da korrikalarien herriaren informaziorik ematen eta gerta daiteke sakandarren baten datua hartu ez izana.

Asteburuan jokatu da XX. Hiru Haundiak mendi lasterketa. Ostiralean gaueko 12:00etan Gopegitik abiatuta, Gorbeia, Anboto eta Aizkorri batu zituen lasterketak, proba Araian despeditzeko. Lasterketa 959 mendi korrikalarik osatu zuten eta hainbatek ezin izan zuten bukatu. Iokin Garai (11:18:25) eta Leire Martinez (13:31:38) izan ziren irabazleak. Hainbat sakandar lehiatu ziren eta azkarrena Joxeja Maiza izan zen. Etxarriarrak 13 ordu pasa behar izan zituen (13:03:11).

Beraza erretiratu zen

Hainbat korrikalarik ezin izan zuten proba despeditu, Jose Luis Beraza korrikalari uhartearra tartean. Anboto jaisten hasi bezain pronto ezker hanka trabatuta geratu zitzaion uhartearrari haitz batean, kolpea hartu zuen eta minak jarraitzen zuela ikusita, 50 km-ko horniduran proba uztea erabaki zuen.



Katarain > Bi podium asteburuan



Urkabe eta Eltxotrailen saritua Beñat Katarain lakuntzarrak badiu beste bi kopa etxeko bitrinan jartzeko. Zabalarte taldekoak larunbatean Oiartzunen jokatu zuten I. Urkabe igoera irabazi zuen (8:54), Aritz Leoneten aurretik (9:10). Eta igandean I. Eltxotrailen aritu zen, Orendainen (20 km). 105 korrikalarien artean Martxel Bereau izan zen azkarrena (1:31:32) eta Katarain minutu pasara sartu zen (1:33:10). Iker Flores urdiaindarrak 11.a sailkatu zen (1:41:10).

Irristaketa

Sakana Irristaketa Taldeak atsedena

Sakana Irristaketa Taldeak otsailaren 2017ko denboraldia, Donibane Lohitzunen, eta asteburuan Iruñean despeditu zuten ikasturtea, Txantrean. "Zailtasunak zailtasun, urte polita izan da hau. Irristalariak, entrenatzaileak eta senitartekoez egindako esfortzuen ondoren emaitza politak lortu ditugu eta makina bat trofeo ekarri ditugu Sakanara" adierazi dute Sakana Irristaketa Taldekoak. Irristalariak egin duten lana eskertu dute eta euren senitarteko eta gurasoen babesa goraiatu dute. "Euren sostengua eta



Sakana Irristaketa Taldeak aipatu dutenez, dagoeneko hurrengo denboraldia, 2017koa, prestatzen ari dira. "Norbaitek irristaketa probatan aritu nahi badu, Sakana Irristaketa Taldeko kide izan nahi badu eta gurekin lehiatu, atek zabalik ditugu. Bidali dezala mezu bat patinsakana@gmail.com epostara eta jarriko gara harremanetan" diote taldeak.

babesa ezinbestekoa da taldeak aurrera jarraitzeko, baita ere entrenatzaileak egindako lana eta irristaketak aurrera egin ahal izateko bere laguntza ematen duten talde eta erakundeen laguntza ere, Mankomunitatea, udalak, kirol klubak eta beste" gaineratu dute.

Mendia

Zabalartekoak gustura bere egunean



Duela 15 urte Pumorin hildako Javi Arkauz mendizalea izan zuten gogoan

Errazkinetik, mendirik mendi, Lakuntzara. Mendi ibilbide hori egin zuten Zabalarte taldekoak

larunbatean, taldearen egunean. Eguna borobiltzeko Lakuntzako Pertza elkartearen bildu ziren bazkaltzera. Bazkalondan Javi Arkauz mendizale lakuntzara izan

zuten gogoan. Duela 15 urte hil zen, Aritz Artieda etxarriarrarekin eta beste mendizale batzuekin batera, Pumori igotzen ari zirela. Senitartekoez oroigarria jaso zuten.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

5. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 1 - BIDEZARRA 2
SAN ANDRES 1 - ETXARRI ARANATZ 0
Lagun Artea eta Bidezarra parez pare aritu ziren. Ollok Lagun aurreratu zuen, baina Bidezarrak agindu zuen lehen zatian. Noingoek 33. minutuan berdindu zuten, penalti zalantzagarrion, eta handik bi minutu eskasera bigarren gola sartu zuten. Gora egin zuten lakuntzarrek, baina penalti bat huts egin zuten eta ez zuten punturik bildu. Lizarratik ere punturik gabe etorri zen Etxarri. San Andres erasora atera zen, baina ongi defendatu zuen Etxarri. Lizarrakoez penalti bat huts egin zuten baina bukaeran garaipenaren gola sartu zuten. Asteburuan derbia jokatu dute Etxarri eta Lagun Artea.

Saillapena >>

- 1. Beti Casadano 11 p
- 5. Lagun Artea 10 p
- 9. Etxarri Aranatz 5 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - LAGUN ARTEA
(Igandean, 16:30ean, Etxarri)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

4. JARDUNALDIA

LAGUNAK 3 - ALTSASU 2
Partida entretengarrion, bi taldeak garaipena lortzen saiatu ziren. Altsasu aurreratu zuen, Lagunak taldeak berdindu zuen eta Barañangoek bigarrena sartu zuten. Altsasuk bina berdintzea lortu zuen, baina hirugarrena sartu zuen Lagunak taldeak eta hiru puntuak lortu zituen.

Saillapena >>

- 1. San Jorge 10 p
- 9. Altsasu 2 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - GAZTE BERRIAK
(Igandean, 16:30ean, Dantzalekun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

5. JARDUNALDIA

BASATI 1 - ZALDUA 6

Saillapena >>

- 1. Ardoi-Poukas 12 p
- 3. Zaldua 10 p

Asteburuko jardunaldia

ZALDUA - ENERIZ (Etzi, Lekunberrin)

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

6. JARDUNALDIA

ALTSASU 0 - ZARRAMONZA 1

Saillapena >>

- 1. Burlades 18 p
- 13. Altsasu 3 p

Hurrengo jardunaldia

KIROL SPORT -ALTSASU (Urriaren 30ean)

Areto futbola

Magna Gurpeak Gran Canaria aurkari

Bihar, 20:00etan, Kanariar Irletan

Magna Gurpea Xotak Jumillaren kontra jokatu zuen etxean aurreko ostiralean. Dani Saldisek, Araçak eta Jesulitok 3 eta 0 aurreratu zuten talde berdea. Bigarren zatian Jumillak gola sartu zuen, baina Victorrek Magna Gurpearen laugarrena egin zuen. "Partidaren bi zatiak kontrolatu ditugu eta garaipen justua lortu dugu" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

KOPAN AUERRERA

Asteazkenean, Errege Kopako final hamaseirenetan, Magna Gurpea Xotak 1 eta 3 irabazi zion Zierbenari, Jesulito, Martil eta Usinengolekin, txapelketan aurrera eginez. Lehen mailan, Movistar Inter da liderra, (6 puntu). Magna Gurpea 5.a da, (4 puntu). Bihar, larunbatean, 20:00etan Gran Canaria taldearen kontra arituko da talde berdea.

MAZKIARANEN MARI LEKEITION: 39.Euskal Zinema Bileran Yolanda Mazkiaran Zelaiaren Mari film laburra eman zuten atzo, amateurren lehiaketaren barruan. beste 20 lanekin lehiatzen da altsasuarrena.

kultura >>

Arte azoka, zabalik

Azaroaren 13ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean

Guztira 36 sortzailereren lanak daude ikusgai Arte Bide-
ren erakusketa kolektiboan. Ostiralean zabaldu zituen atak V. Altsasuko Arte Azokak. Jende asko elkartu zen mustutze-

an eta igandean ere ugari izan zen erakustokitik pasa zena. Musika izan zuten horretarako, musika eskolako gitarra zortzikote baten eskutik.

Erakusketa bisitatzen duenak beste musika bat entzuteko aukera izanen du, Jurgi Oraak propio sortutakoa. Hura entzunez argazkiez, pinturaz, bideoaz, eskultu-

raz edota instalazioaz gozatzeko aukera izanen da. Azaroaren 13ra arte egonen da ikusgai, Iortian.

244

Zenbaki hori da Arte Bidekoen zozketan saritutakoa.



51 argazkilari feria irudikatzen

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak herriko ferietan argazki rallya antolatu zuen igandean

31. aldia zuen lehiaketak eta 51 argazkilari animatu ziren: 44 hel-

duen mailan eta 7 hurren mailan. Argazkiak egiteko guztiei bost gai jarri zizkien antolakuntzak: feriak, etorkizuna, irudi geometrikoak, basoko fruituak eta bitxikeriak. Epaimahaia haiek

aurkeztutako seina argazkiak ikusi eta sariak azaroaren 17an banatu dituzte, Iortia kultur gunean. Toki berean, azaroaren 18tik 28ra rallyra aurkeztutako lanen erakusketa izanen da.



Antzerki trukearen bidetik

Tarima Beltzak Falstaff no cree en la otra vida antzezlan Amurrión jokatu du larunbatean, Amurrión Antzokian, 20:00etan

Emanaldi hori hango Aimar antzerki taldearekin sortutako elkartrukearen fruitua da. Amurriokoek ilbeltzaren

28an bueltatuko dute bisita. Nafarroako taldeekin elkartrukeak egiten sei urte eman ondoren, aurtur hasi da Tarima Beltza taldea beste erkidegoetako taldeekin trukeak egiten. Castro Urdialeseko eta Abadiñoko taldeekin esperientzien ondoren segida du honek.



Musika eta koloreekin sortutako magia

Igandean, 17:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Dot dantza, antzerkia, musika eta teknologia berriak nahasten dituen ikuskizuna da, eta emaitza, buruhauste magikoa. Sol Lewitt artista iparramerikarraren lan kitzikagarria abiapuntutzat hartuta, horma zuri handi bat kolorez beteko dugu. Bi protagonista daude. Bata Laia da, bere pareta txurian agertu daitekeen edozein zikinkeria borrarzen duena. Dot iristean ez du pentsatzen gertatu daitekeen guztia. Magia eta irudimen han-



diz, Dotek eta Laiak musikan eta kolorean barnako bidaiari ekinen diote. Magia hasteko puntuak batu besterik ez dituzte egin behar.

Maduixa teaterren obrak haurrendako ikuskizun onenaren Feten 2014 eta Max 2015 sariak lortu ditu.

Drama eta intriga heriotza baten inguruan

Igandean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Tartean teatroak antzerki thrillerrekarriko du Irurtzungo antzerki ziklora: *Zergatik, Jamil?* Azalpenik gabeko erailketa batek aldi berean bi giza-gatazka agerian utziko ditu. Haiek ikusleak harrapatuko ditu eta aurreiritzi propioak sorraraziko dizkio. Bi dira protagonistak, Jamil, gazte magrebtarra, eta Xabier, parali-

si progresiboa duen eta ohean dagoen gizona. Hasiera itogarria du: kolpe bat jaso eta memoria galdu berri duzu. Dakizun bakarra, poliziak esan dizulako, zera da: bere ohean zetzan elbarritu babesgabe bat tiroz akabatu duzula; duela gutxira arte maitekiro zaintzen zenuen gizona, hain zuzen. Zeure burua duina eta zintzotzat duzu eta hala ere krimenik gorrotagarriena burutu duzu. Eta zeure buruari galdetzen diozu: *Zergatik, Jamil?*

Fitxa

Egilea: Patxo Telleria
Zuzendaritza: Jokin Oregin eta Patxo Telleria
Aktoreak: Mikel Martinez eta Eneko Sagardoi
Argitazpena: Xabier Lozano
Musika: Pascal Gaigne
Audiobisualak: Aronica Productions



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 04%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 18%	euria: 50%	euria: 35%	euria: 30%	
Min: 14 Max: 20	Min: 12 Max: 17	Min: 11 Max: 18	Min: 12 Max: 17	Min: 11 Max: 17	Min: 10 Max: 17	Min: 10 Max: 18	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m'
Irurtzun	21	5	17.7
Etxarri A.	19.7	3.3	15
Altsasu	19	3.5	12.5
Aralar	11.8	3.6	28.8
Urbasa	16	1	34.4

: ilargiaren aldia>>

	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
	22	30	7	14

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

Ekain berri

MONTAIA IGAN DEBATUAN

AQUARIVM

CAMPING ARTAZA

LACTURALE

GAZTEZULO

>> 11 galdera

Unai Mugika

Motoclub Urbasa Kirol Klubeko presidentea

Testua: Maider Betelu Ganboa



Motoclub Urbasa Kirol Klubeko zenbait kide, Mugika tartean. NEREA MAZKIARAN.

- 1. Motoclub Urbasa Kirol Klubasortu duzue, nolatan?**

Lehen Motoclub Urbasa zegoen eta motorrean ibiltzen garen pilotu batzuk berriro taldea martxan jartzea erabaki dugu. Motoclub Urbasa Kirol Kluba sortu dugu, estatutuekin eta legeztatuta.
- 2. Eta zertarako?**

Lehenengo zirkuitua martxan jartzeko. Izan ere, bakoitza bere kabuz ibiltzen gara entrenatzen, ahal den tokian eta moduan. Dermaundago zirkuitua, Mendiaundin, eta 3 hektarea inguru hartzen ditu. Honako zirkuitua martxan jartzeko egiten dugun hirugarren saiakera da.
- 3. Zenbat zaudete taldean?**

40 inguru. Gazteena 16 urteko neska bat da eta pilotu helduenak 44 urte inguru izango ditu. Motokrosa, enduro, cross country... halako modalitateetan ibiltzen gara.
- 4. Helburua, hortaz, Altsasukolehenengo zirkuitua berreskuratzea da.**

Bai. Makina bat lasterketa antolatu izan dira zirkuituan. Legalazen, Udalarrena. Ezzuten itxi; erabiltzez utzitzen eta horrela egon da, 10 urte tik gora. Udaleko herri lurra da eta abeltzain batek du erabiltzeko baimena,azienda sartzeko.
- 5. Zirkuitua zabaltzeko bidean zein prozedura bete duzue?**

Hasteko, kluba sortzea. Bestetik, Altsasuko Udalean esan ziguten abeltzainari baimena eskatu behar geniola. Baimena eman zigun eta horrekin Nafarroako Gobernuo Ingurumen Departamendura jo genuen, zirkuitua martxan jartzeko baimena eskatzera.
- 6. Gobernuaren baimena jasoz duzue.**

Bai, 40 kide inguruk erabili ahal izateko baimena eman digute baina hainbat bete behar eskatu dizkigute: uren kanalizazioa egitea, zirkuitua guztiz itxia egotea, hesituta, sarbidea kontrolatuta egoteko... Zirkuituaren arduradunak edo titularrak gu izango gara, Motoclub Urbasa kirol klubekoak. Atea itxita egongo da, eta sartu nahi duenak gurekin jarri beharko du harremanetan. Jakina, zirkuituan sartzeko kirol lizentzia izan beharko dugu, aseguratuta egoteko.
- 7. Egin beharreko lan horiek egiteko lizentzia Altsasuko Udalak eman beharko dizue, ezta?**

Lizentzia hori jasotzeko zain gaudu, zirkuitua prestatu ahal izateko. Nafarroako Gobernuak 3.000 euroko fidantza eskatu digu, eta horri lanak egiteko aurrekontua gehitu behar zaio eta obren lizentzia. Makinak sartzeko, hesitzea, kanalizazio lanak... askotxo izango da.

Ildo honetan, Udalarekin eta Ingurumen Departamentuarekin hitz egin nahi dugu. 40 bazkidek kostu hori guztia gure gain hartzeaghegi iruditzen zaigu. Azken finean, zirkuitua Altsasuko Udalaren jabetza da, ez da gurea. Dantzalekuko pistak edo futbol zelaia egin zirenean uste dugu zerbitzu horiek kudeatzen dituzten klubek, Dantzaleku Sakana klubak eta Sociedad Deportiva Alsasuak, ez zutela lanen lizentzia, hau da, obren %10a ordainduko. Ezinezkoa da klub batendako. Zirkuitua Altsasuko beste kirol zerbitzu bat izango da, eta guk obren lizentzia ordaindu behar izatea ez zaigu ongi iruditzen.
- 8. Zirkuitu hau entrenamendurako da? Lasterketak izango dira?**

Zirkuituan entrenatzeko baimena jasoz dugu, ez lasterketak antolatze-koa. Zirkuitu askotan kopuru bat ordaintzen duzu eta egun osoa eman dezakezu bertan entrenatzen. Gu ez gara talde itxi bat, edonor hurbildu daiteke gugana, baina 40 motorzaleendako baimena eman digute soilik eta dagoeneko kopuru hori bagaude. Administrazioarekin bildu beharko gara, erabilpenaren inguruan adostasun batera heltzeko. Gu izango gara zirkuituko arduradunak; hori baino kontrol gehiagorik?
- 9. Noizko aurreikusten duzue martxan egongo dela zirkuitua?**

Ez dakit. Baimen kontuak mantso joaten dira, prozesua luzea da. Lasai asko udan jarriko gara.
- 10. Motorrak mendian ibiltzeak ez du prentsa ona. Bideak apurtzen direla, arriskua... Zirkuituarekin hau guztia konponduko da?**

Gu ez gara motorzale guztiek egiten dutenaren arduradunak. Bizitzaren beste alorretan bezala, motor gidarien artean ere denetarik dago, errespetua duen jendea eta errespetua ez duena. Eta gehienetan ongi ibiltzen direnek ordaintzen dituzte gaizki ibiltzen direnek sortutako liskarrak. Guk, klubekoek, zirkuituaren alde egin dugu. Segurua goa da, gertukoek uneoro badakite non zauden.
- 11. Sakanan motokros, enduro, cross country... zale asko dago?**

Txikitatik kirol hauetan lehiatzen den jende asko dago eta motorzale asko.

Poltsikorako, mahairako, hormarako...

Eskatu zurea

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1 Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus